


1920

# ANDRE JOXEPA TRONPETA



IRU EGINTZETAN

**TORIBIO ALZAGA'K**

ERATUTAKO AMETSESKO SORGIN-IPUIA

## Egintariak

Oleskaria

XVII. mendeko poeta, garaiko ileordea darama.

Andre Joxepa Tronpeta

Sorginen erregina

Ixkira

40 bat urteko arrantzalea, on puska.

Pelo (serenua-Baso-Jauna)

45 urteko gizasemea. Bizar luzea

Mister Trink

50 urteko gizaseme ingelesa, ardoaren gurtzailea

Sorgiñak

Mari Joxepa, Kontxita, Sebastiana

Hiru neskatxa gazte

Txagain

Ilaztien burua, ilea eta bizarrak zuriak eta luzeak ditu

Kirkira

Lau Ilazti

Ilea eta bizarrak zuriak eta luzeak dituzte euren nagusiak bezala

Potxolo

Sorginaz jantzia

Lamiñak

Neska gazteak

Emakume-gutzaleak

Gudariak, hegodun-kaskoak buruan.

Rufina

Sorgin potolo-potoloa

Iz-Lamiña

Lamia, izaera gogorrekoa.

Kaxiana  
18 urteko neska polita

Mañu-aztiya  
Sorgin zahar zimur nazkagarria, hortzik gabea.

Aztiyak  
Mutil gazteak, Mañu bezain nazkagarriak.

Maitagariak  
Neska dantzariak, polit-politak.

## LENENGO EGINTZA

Eresia 1 [Andre Joxepa Tronpeta]  
Sarerao eresia

### Izketa

Itzaurea

*(Ezkuta-zapia jasotzen danean, bigaren antzoki-aurea bi itzalkikin itxia agertuko da, ta "Sarerao eresia" amaitzean, Oleskaria itzalkien tartetik aureratuko da. Oleskariak amazapigaren eunkidako oleskarien antzeko jantzia izango du)*

Oleskaria

Jaun, andreak:

Beste izkeretako antzokietan, ipuiak, aldiz aldiz ikusten dira; euskeraz, oraindik, ikusi gabeak gera. Oleskariak, utsune ori bete nairik, ipui bat tajutzeari ekin dio. Ta euskerazko ipuia aukeratze ezkeru, ¿non arkitu beste gairik, sorgiñena bezelakorik?

Betikoak dira Euskalerian sorgin ipuiak, baztar guzietakoak izan dira: ala mendi tarteko baseri ezkutuenan, nola itxas ertzean ekaitzak zatitzen dituen arantzale etxe zintzoetan.

Guztiak ipui oietakoak entzun ditugu; bati-bat sendikoak elkarganetzen diran egun alaietan, arako gabon-gau zoragarietan: sukalde txokoan bildurik, suaren epeltasunean baño, alkar ganako naitasunaren bero gartsuan obeto; entzunaz apari gozoaren eratzeko ots pozgariak: emengo pil-pil, ango txir-txir, tanboliñetako gaztañen zirt-zart zaratariak; bilobatxoak aboa zabalik, seme alabak ariturik... amona xar maitagariaren abotik... ¿zenbat aldiz entzun dira sorgiñen gertagai zineskaitzak!

Ipui oien antzekoa da bada, gaur oleskariak azaldu nai duena.

¿Gezurak dirala? Ori guztiok dakigu; agertzen alda ordia antzokietan gezura ez dan zerbait? Ala ere, tartian, tartian, egi batzuek zabaldu ditu. Maizukeri aben zaleak izan oi dira beti oleskariak.

Gure euskera zar, maitagarria ganako gogo kementsua, gure oitura garbi gogoangarien aldeko

zale bizia, euskal izakera beti goitu duten onbideen leyadura... ora zerk eraman duen oleskaria ipui au tajutzerera, ta ora zer dan, bere aldetik, ipuian agertzia nai lukeana.

Ala ere, izango dira onenian, jantzi ta apainketa batzuek ikustian, euskal itxurik arkitu ez diotela esango dutenak. Askorentzat abarketatik atera ezkerro ez dago euskal zantzurik. Oker daude ordia. Abarkak, maitagariak dira, gure asaba ospetsuen oroipen gurgaria gordetzen digutelako. Bañan, euskalzaletasuna ez degu oin muturetan euki bear, biotzaren baren barenian baizik.

Orengatik; dirala onlako edo alako oñetakuak, era bateko edo besteko janzki ta apainketak, sustrayian pixtu nai izan du oleskariak Euskal eriaeren ganako naitasunaren txingar gartsua, ta sustrayian bilatu bear da euskal zantzua, euskal itxura, euskal zaletasuna.

Oleskariak bere ustez, orela eratu du bere ipuia. Bañan, garaya iritxi danean beldura sartu zayo. ¿Amestu bezela eratu ote du ipuia? ¿Asmatu ote du bere alegiñean?

Jaun, andreak

Ori, zuek erabaki bear dezute.

Orain, estalki abek jasotzeakoan, ipuia azalduko da emen; eta zuen iritzi zintzoari oleskariak, apalki, burua makurtuko dio.

*(Burua makurtuaz estalki tartetik joaten da)*

Lenengo Laukia  
Kayeko Portalia

Eresia 2  
Bitarteko eresia

Lenengo Irudia

I

Pelo (serenua). Gero Andre Joxepa Tronpeta. Azkenean Ixkira

*(Estalkiak jasotzeakoan, kayeko portalia (kayeko kaletik begiratuta ikusiko balitz bezela) agertuko da. Gaberdia igaroa da, ta argiaren moteltasunak itzal itxura ematen dio toki ari. Portale barenen dagon argi kaxkararen dardarak itzalguneago jartzen du. Oso atzean, noizean bein argi txiki bat, batera ta bestera dabilela ikusten da. Kayian dagon ontziren batena da.*

*Portaleko orman, ezkeretara, erdi etzana, ta bertan jayoa dirudila, azaltzen da Pelo serenua*

*Eresiak "Andre Joxepa Tronpeta"ren abestia azaltzen duenean Andre Joxepa Tronpeta sartuko da atzetik eta eskuitik juango da.*

*Pelo'k zorotz begiratuko dio.*

*Andre Joxepa oso beltzez jantzia azalduko da, buruko zapiarekin, eta bizkarean oyal bat, bere arekin eskuak gordetzen dituela. Begiratu zorotz eta ibilera kementsua ditu.*

*Eresia amaitzen danian sartuko da atzetik Ixkira ta Pelori begira, zerbait galdetu nai balio bezela geldituko da)*

## Bigaren Irudia

### II

#### Pelo ta Ixkira

Ixkira                   Pelo: ¿ikusi al dezu, andre ori?  
Pelo                     Bai.  
Ixkira                   ¿Nor da?  
Pelo                     Andre Joxepa Tronpeta.  
Ixkira                   Bañan, emakume bakara, ordu abetan, toki abetatik... ¿zer izan liteke?  
Pelo                     Zer izango dek ori: sorgiña  
Ixkira                   ¿Sorgiña?  
Pelo                     Bai, sorgiña, bai. Ori dek emengo sorgiñen etxeoandre, eregin edo ama santuba.  
Ixkira                   ¡Ai Pelo! ¡Ez dakizu zer zauria nere biyotzian irikitzen dezun!  
Pelo                     Ondo biguña daukak. Ik, biyotza, *pastel kremaskuakin* egiña izango dek.  
Ixkira                   ¡Ai Pelo! ¡Ni baño ume zoritxaragokorik ez da jayo.  
Pelo                     ¿Zer dek bada?  
Ixkira                   Dakizun bezela, berogei urte arte mutil-zar egon naiz; neska bati arpegira begiratu gabe, neska baten uratza usmatu orduko, itzuli beste aldera. Etxetik, arantzara, ta...  
Pelo                     Ta arantzatik sagardotegira.  
Ixkira                   Ontan, berogei urte osatu nituen egun berian, aratzaldeko bostetan... ez, gaizki ari naiz, bostak amar minutu gutxiyagotan ezagutu nuen Kaxiana.  
Pelo                     ¡A, bai!...  
Ixkira                   Ura ezagutu nuben ezkeroko oso txoratu nitzan. Nere buruban Kaxiana besterik ez zegon. Beti Kaxiana'z oldozten, ala legorian, ala itxasuan. Ametsetan ere nere arekin nebilen beti. Kaxianak nere naitasunari gogotsu erantzun zion, eta biyak egoten giñan, baba zeigula, batak bestiari begiratu goxuak egiñaz, itz legunak esanaz... A... Eramaten nizkion askotan, zala legatz bixarak, trinpolak, arabak... eta aritzen giñan biyak, jakiyari arek koxk eta nik koxk, arek koxk eta nik koxk...  
Pelo                     Umiak bezela.  
Ixkira                   Umiak bezela. ¡Ai, Pelo! ¡Alkar ganako naitasuna zein estitsua dan ez nekiyen ordu arte.

Pelo Bai... tipul ale bat eta poruperejil pixka batekin oso goxua izaten dek.

Ixxira Bañan, gau ikaragari bat iritxi zan, eta Kaxianak... garai ontan berean, toki onetatik beretik... aistiyan Andre Joxepa Tronpeta'k bezela alde egin zuben.

Pelo Ai, ai, ai...

Ixxira Tresen bila ni Joan satora, ta ikusi nubenian, barenak jira egin ziran. ¿Nora zijoan Kaxiana, bakarik, garai artan? Zegona zegon tokiyan utzita, eriyotz izugarian etori nitzan. ¡Alperik! Ez nuen zantzurik ere arkitu! ¡Zorigaitzoko gau ura ezkerro, ez da Kaxianik geyago azaldu!

Pelo Badakik, bada, zergatik

Ixxira ¿Zergatik?

Pelo Sorgiña dalako.

Ixxira ¡¡Sorgiña!! ¡Nere Kaxiana sorgiña!

Pelo Sorgiña bai

Ixxira ¡Zorigaitza! Askotan esaten niyon nik, maitetxo, ¡nere sorgiña! ¡Baña, ez nuen beñere txinistuko egietako sorgiña izan zitekenik!

Pelo Txinistu ezakek ba. Mutil, Donostiya sorgiñez josiya zio; gutxiyena uste dana sorgiña dek, sorgiñez ingurutuak giotzik, baztar guzietan bazebiltzik. Batzuben tankera batian, bestiak bestelako eran, asko itxura nabarmenetan... Atzo bertan, ikusi nikan poliziyako bat... Romanones deitzen dituzten oyetakua...

Ixxira ¡A bai!

Pelo Bibote aundi batzuekin, eta ezkeroko begiyari ogeitamaika balu bezela, onela egiñaz zebilekan. Nerekin arkitu zanian, beste aldera begiratuaz, ez ikusi egin zikan. Nik, ordia, azkar ezagutu nikan.

Ixxira ¿Kastelanuak ez dira ba oyek?

Pelo ¡Zer izan biar zikan arek! Ura ukan, orain denbora gutxi arte, or, Pixepelen, bizitutako neska baztanga pikatu bat. ¡A nere begiya!

Ixxira ¡Zer itxuretan ote dabil nere Kaxiana!

Pelo Gaur goizian, eguna iya argitu baño len; neronek, nere begiyakin ikusi diat poliziya itxurako ura, or, Bretxako aldamenian; Lugaritz aldetik tratubakin etoritako gurdi batian zegon asto zar batekin izketan.

Ixxira ¿Astuarekin izketan?

Pelo ¡Asto itxuran, sorgiña!



Ixxira                   ¿Asto itxuran ere bai?  
Pelo                   Mutil, gai ontan oso *paxano* ago; ez dakik ezer ere.-  
Oraindik ez dek iru egun, jua nindukan or aureko  
zigareira poxporuak erostera. Erakustoki gañian,  
*mostradore* gañian, katu gizen bat ziokan papara  
zeriyola. Begiratu orduko, neregan egin nikan: nik,  
au, ezagutzen diat.

Ixxira                   Katu ura...  
Pelo                   Sorgiñ ura! ¿Sorgiña zala, ez al diyok antsik  
ematen?- Begiratu niokan eta bat batetan konturatu  
nindukan. Zera ukan ¡Epifani!

Ixxira                   ¿Epifani?  
Pelo                   Koipe  
Ixxira                   ¿Epifani Koipe?  
Pelo                   Ber bera. Uraxe ukan. ¡Zerbaitetarako baziokan  
erakustoki artan!

Ixxira                   Bañan, ¿nola jakin liteke onlako dan edo alako dan?  
Pelo                   ¡Jakingo ez dek bada! Ara: jua dan astian gertatua  
dek au. Badakik Txinguri nor dan?

Ixxira                   A, bai!... zera...  
Pelo                   Apariya zitekan Amuenian. Ondo apaldu, ta bero  
bero egin ziranian, beriketan asi itukan, eta,  
Txinguri, abo zabal orek, ekin zikan esaten, onlako  
neskarekin egin zubela onlako, eta bestiakin alako...  
ta, ez bat eta ez bi, nundik eta nola etzekitela, mai  
gañean agertu zitzaotekan olar beltz bat, eta tente-  
tente jaririk ¡kukuruku! egin ziotekan. ¿Badakik  
Txinguri, zein biguriya dan? Bada, artu mai gañian  
zegon labana, ta, ¡zazt! Kokotz azpiyan iru biatzeko  
ebakiya egin ziokan. Nola etzekitela, olara ezkutatu  
ukan. Urengo goizian, Eskotila kaleko bostgaren  
bizitza batian, neska bat ¡neska edera gero! kokotz  
azpiyan iru biatzeko ebakiyarekin agertu ukan.  
Lenago Txingurirekin zerbait izana biar zikan...  
Mutil orek gaizki ibili biar dik. ¡Ez nitek oren  
laruban egon nai!

Ixxira                   ¿Beraz sorgiñak era guzietan agertzen dira, e?  
Pelo                   Somatu litezken era guzietan. ¿Nork uste dek  
egingo lituztekela bestela, ezin txinistu litezken  
alako txarkeriyak? ¿Nor dirala uste dek ik, bitxi-  
denda, joyeriyak lapurtzen dituztenak, nai dutena  
arapatu ondoren, ez zantzu, ez arasto, ez asterenik  
utzi gabe? ¡Sorgiñak! Orain denbora gutxi ere, or  
Andia kaleko bixitegi edo erloju denda lapurtu

zutenak... telatutik sartu zirala ta... ¡¡Sorgiñak!! Eta gero serenuen gatik ari marmarizoka... serenuak, sorgiñak arapatzeko trebetasuna balute bezela. Oso gaizki giatzik, Ixkira, oso gaizki.

Ixkira Txinisten dizut; ni beintzat ezin gaizkiyago egon...  
¡nere Kaxiana gabe!

Pelo Sorgiñak eri guziya itxutua zeukatek.

Ixkira ¿Itxutua?

Pelo Bai, bada. ¿Noiz ikusi da Donosti'ko eriya, orain bezela, [jende geyena] betaureko [beltzakin ?]  
¡Antiparakin!

Ixkira Ala da izan ere. Bañan, ori, ¿zergatik?

Pelo ¡Begizkua dek ori! ¡Sorgiñen begizkua!- Gaizki guazela, Ixkira, txit gaizki. Sorgiñak oso nagusitu dituk, buruz-gain egin ziutek, eta orela baguaz, Donostiko eriyak egun goriya ikusi biar dik.

*(Barenen ezker aldean txaloak entzuten dira)*

Ixkira ¡Txaloka! ¡Sorgiñak izango dira!

Pelo Ez; atia irikitzeke deitzen ziatek.

Ixkira ¡Ala ere!

Pelo *(Giltza aukeratu ta ezkerera juanaz)* Oso gaizki guazela, Ixkira, Oso gaizki.

Ixkira Ni beintzat bai. ¡Zer egin ote du Kaxiana'k! Onenian, or dabil kayian, karabinero itxuran... Bañan, ¿nola ezagutu?

*(Ezkeretik juaten dira biyak)*

## Irugaren Irudia

### III

#### Mister Trink

##### Eresia 3 [Bete betia zaude]

*(Mister Trink eskuitik sartzen da pipa ezpañetan duela. Orma ondoan etzan, eta ezereen kardabik gabe dago. Ontan ereslari batek jotzen du: Bete betia zaude eta asareturik zuzentzen da.*

*Andik pixka batera, beste ereslari batek gauza bera jotzen du, ta Mister Trinkek iru uratz aurera egiten ditu, bañan gero lengo tokira biurtzen da.*

*Orduan beste ereslari batek, gauza bera indartsuago jotzen du ta Mister Trink, oso asare, zemaituaz aureratzen da, baña orduan laugaren ereslari batek jotzen du pizkorki: "Bete betia zaude... 'año" eta Mister Trink'ek atzeraka alde egiten du.)*

## Laugaren Irudia

### IV

#### Pelo ta Ixkira

*(Pelo ta Ixkira ezkeretik biurtzen dira)*

#### Izketa

Pelo                   Sorgin oyekin gauz onik ez zio.  
Ixkira                Eta neretzat, gauzik onena sorgin oyekin dago.  
Pelo                   ¿Nola?  
Ixkira                Nere Kaxiana oyekin dagolako.  
Pelo                   ¿Bañan, oraindik, Kaxiana'z gogoratzen aiz?  
Ixkira                ¡Baita gogoratuko ere!  
Pelo                   ¿Sorgiña dala esan ez diat ordia?  
Ixkira                ¿Ta, zer? Dana dala, ni, Kaxiana gabe ezin bizi naiz:  
                          egunez lan egiteko kemenik ez daukat, gabian loik  
                          ezin egin det; nere buruan beti, aren oroipena  
                          dabilkit.  
Pelo                   Ba, ura biar badek, bera dagon tokira juan biarko  
                          dek.  
Ixkira                ¡Non dagon baneki!  
Pelo                   Mutil; ez dek emendik uruti izango. Sorgiñak beren  
                          biltokia, Igeldo'ko mendian ditek; eta, ire andre-gai  
                          dalako ori, an izango dek noski.  
Ixkira                ¿Igeldo mendian?  
Pelo                   Bai. Lenago Jaizkibelen, Anboton, Zugaramurdi'n  
                          eta orlako mendi baztaretako erekatxoan ertzetan  
                          biltzen itukan; baña, orain, ezkutuago izatia gatik,  
                          Igeldo'ko mendiyaren barenen ditek beren bizi-  
                          tokia.  
Ixkira                ¿Mendiyaren barenen?  
Pelo                   Bai, arkaitz tartetik barena sartuta.  
Ixkira                ¿Orduan edozein sartu liteke?  
Pelo                   Bai zera... Sarera ondo gordia ez bazeukatek ba...  
                          Beazak: denda aberatzetan badakik, nola lenbizi,  
                          atia irikitzeakoan ¡Tiriin! egiten duben, eta, gero  
                          txintxari txikiyagoko batek ¡txiriin! ixildu gabe, jabia  
                          etori arte? Bada, sorgiñak, askoz obeto zeukatek.  
                          Iñor alderatu orduko, inguruko kirkir guztiyak asten  
                          dituk ¡kri... kri... kri... eta ez dituk ixiltzen alde egin

arte. Onela, barenen bazekitek, eta arkaitz tartetik txeletatzen egoten dituk.

Ikkira Beaz, kirkirak...

Pelo Sorgiñen mendekoak dituk.

Ikkira ¡Nork esan, kirkirak arapatzeko, txulotik txotxakin zirikatzen aritzen giñanian...!

Pelo ¡Sorgiñen *tinbria* jotzen ari ziñatela!

Ikkira ¡Arigariya da gero!

Pelo ¿Eta barena? ¡Ura dek arigariya, ura!

Ikkira Bai, e?

Pelo Esatia bat dek, eta ikustia bestia. Ango neuri gabeko edertasuna, anga margo zoragariyak, anga apainketa ikusgariak, ¡ezta ametsetan ere!

Ikkira Izan ere...

Pelo Gero, alderdi guzietan ituriyak, usai-gozoko ura txiriyuan botiaz, Ura dek usai gozua, ura; ta ez *patxoli* edo, emakume askok ibiltzen dutena.

Ikkira ¿Beita-usaya baño re obia, e?

Pelo Askoz ere. Gañera badizkitek txori batzuek, ik eta nik bezela, itzegiten dutenak.

Ikkira ¿Guk bezela?

Pelo Ez; gaizki esan diat. Guk baño euskera jator, garbi, txukun, apain eta ederagokuan. Txantxangori bat baditek... abestutzen dik... xamurago... leunago... goxoago... zera... ago... bai (*Abestuaz*)

Altza Pilili  
trunlala  
trunlala  
trunlala

Ikkira ¿Txoriyak, e?

Pelo Txantxangoriyak.

Ikkira Ori bai dala arigariya

Pelo Ala, sorgiñak jaya dutenian, an ikusi ta entzuten diran gauzen edertasunaz, etziok zer esanik.

Ikkira ¿Jayak ere izaten aldituzte?

Pelo Berebizikuak. Aker lara deitzen ziotek; eta larunbatetan, gaberdiyan, izaten dizkitek. Lenago, umiak eramaten omen zizkitek, bañan, orain ez diat uste. Eri zarian beintzat, egunetik egunera aur geyago ageri dek; eltxua bezela; mutil, anka azpitik ezin atera.

Ikkira Atoz ba kayera ¡An dago apasta, an!

Pelo Ez dizkitek eraman biar, ez.

Ikkira ¡Kayetik ez beintzat!

Pelo Lenbizi izaten ditek, sorgin-jai berezia, ta azkenian, dantza. ¡Ura dantzaren liraintasuna! ¡Ango kabriolak! ¡Ango krixkitin jotziak!... –Tanboliña beriz...

Ixxira ¿Tanboliña re ba al dute?

Pelo ¿Sorgiñak? ¡Ñun ez bezelakua! Txistularia orain, ezpain-okera ditek...

Ixxira ¿Eta nola?...

Pelo Txistua zudurakin jotzeik, eta ateratzen zioz soñu bat... Santa Mari'ko organuak bezel bezelakua.

Ixxira ¡Gizonaren trebetasuna!

Pelo Ta, ez diat esan. Dantzaren aurretik, apariya. Badakik, sorgiñak jaki goxuak maniatzen banen banakuak dituk; eta ¡ango kaxuelakarak! ¡ango xaltxa koipetsuak!... Bein txipiroyak zizkitek, eta alako xaltxa goxua jari ziotekan... ¡txipiroyak berak, pozez, kaxuelan dantzan asi itukan!

Ixxira ¿Ez al zuten irintzirik egin?

Pelo Sagardua beriz... ¡Ura mama!... Txinparta batzuek botatzen dizkik, ure printzak diruitenak, eta ayek zudura ukuitzean axkure bat ematen ditek... gorputz guziya kilimatzeño. ¿Ta erateakoan? Goitik bera dijoan bezela, baren guziya lasaitasun bixigari batian zabaltzen dik, eta, azkenian, oñetako azkazalak ere, dar-dar jartzen dizkik.

Ixxira ¿Bildurez?

Pelo ¡Pozez! Ai, Ixxira, ¡Sorgiñen jaki ta erariyak bezelakorik, etziok iñon!

Ixxira Bada, nik, sorgiñen jaki ta erari oyek guziyak baño nayago nuke bakalo gordin puzka bat...

Pelo ¿Nola?

Ixxira Bakalo gordin puska bat, bai; eta nere Kaxiana'rekin ari len bezela... arek koxk eta nik koxk, arek koxk eta nik koxk.

Pelo ¡Ori dek ori, mutil-zararen berotasuna!

Ixxira ¡Kaxianik gabe ezin bizi naiz ia!

Pelo ¡Ua ba, bere bila!

Ixxira Nondik esaten badiazu...

Pelo Nondik... etzekiat ba nik. Igeldo'ko bian dala baña...

Ixxira ¿Ez dakizula non dan?

Pelo ¿Nola jakingo diat ba?

Ixxira Ea... ¿nola dakizkizu bada, baren artan gertatzen diran gauz arigari ayek guziyak?

Pelo Neri re esan dizkiatelako.

Ikkira                    ¡A!  
Pelo                        ¿Zer uste ukan bada, ni baren artan izanduba  
naizela?

Ikkira                    Noski.  
Pelo                        ¡Zer izan biar nikan! Nik etzeukat an Kaxianik, i  
bezela, koxkaka aritzeko. Baña alde alde, esango  
diat. Antigua'tik sartzen aizela, jarai zak itxas  
bartzarian, eta, uruti gabe, an izan biar dik.

Ikkira                    Juango naiz bada.  
Pelo                        Orain atera ezkerro, Andre Joxepa Tronpeta orduko  
an aiz; ta ura irixteako, sorgiñak eratz gañian, aidian  
jiraka, an ibiliko dituk karaxi egiñaz: "Ez geala ta  
bageala! ¡Ez geala ta bageala!"

Ikkira                    ¿Ori re, zuri esan dizutelako, jakingo dezu, e?  
Pelo                        Bai, noski. ¿Zer uste dek, nik asmatu egiten  
ditudala? ¡Edozeiñek esango likek: gezurak  
somatzen ari naizela!

Ikkira                    Ez dizut orengatik esan.  
Pelo                        Ire on biarez ari nindukan ta...

Ikkira                    Bai, bai: ezagutzen det.  
Pelo                        Badakik, ba: sorgiñak ikustian, zaitu nondik sartzera  
dijoazen, eta, berakin batian ¡zazt! ¡barenera!

Ikkira                    Ala egingo det.  
Pelo                        ¡Ez gero bildurtu!

Ikkira                    Ez. Lenagore itxasuan estu-aldi gogorak igaro izan  
ditut, bañan, nere dardarik ez du iñork ikusi izan.

Pelo                        ¡Ikkira! ¡Bulartsu ibili biar dek!

Ikkira                    Badakit laritasun aben beri... ¡Arantzalia naiz ta!...

*(Ikkira kementsu eskuitik juaten da)*

Estalkiak jeixten dira

## Bigaren Laukia Igeldo'ko arkaitzetan

Eresia 4 [Arantzalia naiz ta/ ez daukat dirurik/ iru alaba dauzkat/  
ezkondu biarik.]  
Bitarteko eresia

*(Estalkiak jasotzeakoan Igeldo mendiaren oñeko arkaitz tartea  
agertzen da. Ezkeretara Igeldo'ko itxas-argia ikusten da, bere  
krisaluaren izkia zuri ta gori txandaka azalduaz Ixkira arkaitz  
tartean dago)*

### Lenengo Irudia

#### I

#### Ixkira

Ixkira

¡Bizirik nagonian ez naiz asare! Neri gertatu  
zaizkidan gauzak, ezin zinistu litezkenak dira.  
Sorgiñak era guzietan agertzen zirala. Pelok esan  
ziranian, zerbait bazekien.

Alderdi ederetik barena, txoriya baño ariñago ta  
alayago, abestuz netoren bañan Kontxa'ra iritxi  
naizenean, abestutzeko goguak jua zaizkit.

Orduik jartzen ez duten erloju ayetan, neri agertu  
zaizkidan begiyak. ¡Ayek begi ikaragariyak! Pruentxi  
gaztain-zaltzale begi-okere are begiyak, total  
eraginda gori-gori jartzen ziranian, izugariak izaten  
ziran; bañan, neri agertu zaizkidanen antzik ere ez  
zuten: aundi-aundiyak, biribil-biribilak, gori-  
goriyak, eta sua botatzen zuten zezen-suskuak  
bezela.

Ori asko ez dala, pilariak, beren tokietatik aterata, ni  
arapatu biar nautela asten dira, faolak eukitzeko  
ayek, burnizko besoak balira bezela, luze-luze  
egiñaz... ¡an ziran xexenak ordubantxe! Itzul egin  
nai ta ezin, zer egin jakin ez; ta ala nabilela, batek  
prakapetik eltzen nau, ta, ¡antziak Ixkira! ¡Aidian  
karakilo!

Batek utzi ordurako, bestiak eltzen ziran... ¡Leon-  
kastilo nerekin jokutzen ari balira bezela!



Ontan, ez bat eta ez bi, etxe aberatz bateko burni-sari edo ereja, asten da kirin-karan, eta emen dator ura ere, nerekin txapetan jokatzera. ¡Ez dakit guztiyen artian nola txirtxilatu ez nauten!

Abua itxi, burua makurtu, ta xegara biziyan alde egin det. Bañan, bat batetan ¡fiu! ¡fiu! Begiratzan det gora, ta Bila Aldamareko erain-sugia, nere gañian, aidian jiraka zebilen. ¡Neriak egin dik! esan det. Bañan, ain xuxen, sereno bat andik urutixiago agerizan. Banua beregana... baña, alderatzeakoan, neregan egin det: serenua, garai ontan, emen... ez ote da au ere, sereno itxuran sorgiñen bat. ¡Nork daki ba orain, zein dan sorgiña, ta zein ez!

Baezpadare, ari ezer esan gabe, aldetan lasterena tunelera jo det.

¡Sartu banaiz, sartu naiz! Etzeukan egunez eukitzen duen itxuraren apurik ere, leiza-zulo ikaragari bat egiña zegon, eta ango ormetan, sortu ta oraindik sortu gabeko pixti mota guziyak zilipurdika an zebiltzan. Batek ¡fi!, bestiak ¡fu!, onek ¡miau! arek ¡muu!; karaxi era guzietakuak baziran. ¡Baita, kayian, atso ernegatu batzuek egiten dituzten arantzak ere!

Ez dakit nola, bañan, nolanaire, andik atera, ta onera iritxi naiz ¡ordu onian!

Eta gero, sorgiñik ez dala esango dute... Ori diyotenak dijuazela, ni bezela, garai ontan Kontxa'ra; an ikusiko dute badiran edo ez.

¡Bizirik nagonian ez naiz asare! Oraindik ere, or daude bai, txeletan. Nik ikusten ez banitu bezela... (*Itxas-argiari begiratuaz*) Ara: orain begi zuriya ageri du. Orain goriya. Orentzaro'k bezela. Bai, bai: ¡lo niok!

¡Ai Kaxiana, zu gatik ez balitz!

## Bigaren Irudia

### II

Ixkira, Andre Joxepa Tronpeta, Sorgiñak

Sorgiñak            *(barenen ezkeretatik)* ¡Yui! ¡Yui!  
Ixkira                ¿Zer da ori?  
Sorgiñak            *(barenen ezkeretan)* ¡Ez geala ta bageala! ¡Ez geala  
                          ta bageala! ¡Aaaai!

Eresia 5  
Irudi eresia

*(Atzeko zapia argiztutzen da ta Sorgiñak eratz gañian, aidian ezkeretik eskuira dijoazela ikusten dira. Karaxi aundiak entzuten dira.*

*Gero zapiko argia itzaltzian, eskuitik sartzen da Andre Joxepa Tronpeta, ondotik, sorgiñak dituala, ta abek gordetzen dutela baruan, sartzen da ura, iñork ikusi gabe.*

*Sorgiñak, maruaka, triskaka ta biurketak egiñaz arkaitz iriñartetik alde egiten dute.*

*Sorgin bat arkaitzean sartzen dan bakoitzian, Ixkira'k ere sartu nai du, bañan uxiatzen dute.*

*Azkeneko sorgiña sartzera koan burua sartzen du Ixkira'k, eta anak kanpuan dituela gelditzen da.*

*Orduan arkaitzak mutur ikaragari baten antza artzen du ta koskaka asten da)*

Estalkiak jeixten dira

Irugaren Laukia  
Sorgin-eria

Eresia 6  
Bitarteko eresia

Lenengo Irudia

I

Ixkira

*(Estalkiak igotzerakoan oso ilun dago. Ez da ezer ere ikusten. Bañan Ixkira'ren abotsa entzuten da)*

Ixkira            ¡Auxen da ilunpeta! (Solomosoka banebilke bezela)  
Sorgiñak nora alde egin duten ez dakit nik.  
Konturatu ordurako ezkutatu ziran eta beren  
aztarenik ez det iñondik ulertzen.  
¡Edera da gero! Kanpuan nebilenian sorgin tartean  
ezin alde egin; eta beren bizitoki bertara etori, ta  
emen baten bakaren loratzik ezin somatu.  
¡Ai, Kaxiana maitia! ¡Non ote zaude zu! Emen  
nagola bazenekizu, ni pixka bat atsegintzera etoriko  
ziñake noski... Bañan azkar ez bazabiltza, ari  
bigurtuta arkituko nazula iduritzen zait.  
¡Ai, Kaxiana! Zure biyotza ez alda arizkoa izango;...  
ta malko epel, goxo bat ixuriko dezula uste det.  
Uste orek, nere azken erukari onetan zerbait  
indartzen nau.  
¡Ai Kaxiana! ¡A...!  
*(Zerbait ulertuaz)*  
¡E...! Argi izpi bat iduritu zait. ¿Zer ote da?

*(Ixkira eskuitan ezkututzen da)*

## Bigaren Irudia

### II

#### Txagain eta lau Ilazti

Eresia 7 [Ilaztien dantza]

Irudi eresia

*(Txagain argi-ontziarekin eta lau Ilaztiak (binaka) aztikinakin, atzetik sartzen dira, Ixkira ikusten ote duten alde guzietara begiratuaz Txagain argi-ontziarekin sartzen danian irudia pixkabanaka argituaz juango da, oso argi gelditu arte.*

*Orduan agertuko da lurpeko gela ikusgari bat edertasunez betea. Aurean ezkeretara argi-ontzia jartzeko aulki bat egongo da.*

*Txagain erdian eta Ilaztiak lau muturretan jariko dira alderdi guzietara begira.*

*Gero Ilaztiak erdiratuko dira, beren burukoak argi-ontziari joaz, estalki bat dirudiela, ta begira egongo dira.*

*Azkenik Txagain'en atzean labak erenkadan jariko dira, ta eskuira begiratzeakoan, Ixkira ikusiko dute, ta ojuka asiko dira)*

## Irugaren Irudia

### III

Lenguak eta Ixkira. Gero Kirkira

Ilaztiak (Eskui aldera ikurtzatuaz) ¡O!  
Txagain ¡Ara! ¡Ara!  
Ilaztiak ¡Ararat!  
Txagain ¿Zer da zanguru ori?  
Ixkira (Eskuitik sartuaz) Zangurua, ez jauna ¡Ixkira!  
Ilaztiak ¡O!  
Txagain ¡Zorigaiztoko gizona! ¿Zer egin dezu? ¿Sorgin-eriko pake baretsua autzitzera etori zera?  
Ixkira ¡Ez jauna, ez!  
Txagain ¿Emengo ixilikakoak aztertutzero zatoz?  
Ixkira ¡Ez ta re!  
Txagain ¡Galdua zera! Zure biziyak arkaitz tarte abetan azkena izango du!  
Ixkira Bañan, jauna...  
Txagain ¡Zu purukatu bear zaituen lerti ikaragarria, zure oñetan dar-dar-ka dabil!  
Ixkira ¡Emen!  
Txagain ¡Zu apurtu bear zaituen tximist zigorkaria, zure buru-gañean sortzen ari da!  
Ixkira ¡Nun!  
Txagain Zure gorputz atalak purukatu, zure ezurak kris-kraska txetu, auts madarikatuan biurtu, ta su gorituan ezereztu: ora zure ausarkeriak izango duen saria.  
Ixkira Jauna, entzun bezait jauna. Zera jauna... etori banaiz jauna...  
Txagain ¡Zorigaiztoko gizona!  
Ilaztiak ¡O!  
Ixkira Jauna, badaki, jauna...  
Txagain ¡Galdua zera!  
Ixkira Neri, etortzeko esan didate jauna ta...  
Txagain Orelako ergelkeria, inork esan dizu bada?  
Ixkira Zera... Pelok...  
Txagain Zer Pelo, ta zer poru. Zure azken-ordua iritxi da. ¡Orain, zure gorputz nardagarria, apurtu, txetu bear da! ¡Orain!  
Ilaztiak ¡Orain! ¡Orain!  
Ixkira Pelo'k esan didala, jauna... ¡Pelo serenuak!  
Txagain ¡E!

Ixkira Bai, jauna... Pelo serenuak... Berberak jauna.  
(*Txagain eta Ilaztiak alkari begiratu ezkutu batzuek egin ondoren, geldi-aldi txiki bat.*)

Txagain Ta maltzurkeri oretan, ixilka ta mixilka, Donostiyan aragi-arapatzalen tartetik bezela, Sorgin-erian sartzen dala uste dezu?

Ixkira Barkatu, jauna. Sareran txintzaririk ote zegon begiratu det; bañan ez det inondik arkitu jauna.

Txagain ¿Ta, atesaia, ez al dezu arkitu? ¿Aren itzuli ez al zera ibili?

Ixkira ¿Atesaia? ¡Ez ta ikusire!

Txagain ¿Ikusi re ez? (*Ilaztia!*) Ia, atesaia, onera datorela (*Ilazti bat ezkeretik joaten da*) (*Ixkira'ri*) Egia ala gezura dan, orain ikusiko da.

Ixkira Egi-egiya, jauna. ¡Atesaiak ez al ditugu bada ezagutzen!... Kayian ez da egiya; bañan, orain Pixepelen ere jari biar omen dituzte.  
(*Ilaztia ezkeretik biurtzen da. Bere ondoren dator Kirkira*)

Txagain Ona atesaia...

Ixkira ¡Oi! ¡¡Kirkira!!

Txagain Kirkir ara. Ori da atesai burua.

Ixkira (Pelo'k zerbait bazekien.)

Txagain (*Kirkira'ri*) ¿Gizaseme au sartzen, ez al dezu ikusi?

Kirkira Kri-kri... kri... kri-kri.

Txagain ¿Zure tokian ez al zeunden?

Kirkira Kri... kri... kri-kri-kri-kri... kri.

Txagain ¿Beraz, gizaseme au, zuzen etori da?

Kirkira Kri-kri... kri... kri-kri-kri.

Txagain Ondo da. Juan zintezke.

Kirkira Kri-kri... kri-kri. (*Agur egiñaz, Kirkira ezkeretik joaten da*)

Txagain (*Ixkira'ri*) Une bat geyago emen iraungo badezu, arazketa egin bearko degu.

Ixkira Nai duben bezela, jauna.

Txagain Jari zaite bada, emen erdiyan, txapela atera, ta ixil ixilik egon.  
(*Ixkira'k, aginduba egiten du.*) (*Gero Ixkira'ri jira emanaz, Txagain'ek dio:*)

In nomine Patrika  
Arageako Patrike  
Balenziako Grau  
Onek sendatu nau

Ilaztiak ¡Rau!

Txagain In nomine Patrika  
Arageako Patrike  
Gaztel Sanikot au  
Ekida kosk nai bau

Ilaztiak ;Rau!  
Txagain Amaitu da. Txapela jari, ta zertara etori zeran, esan.  
Ixxira Badaki, jauna: ni, berogei urte arte, mutil-zar egon  
naiz; baña, orduan, Kaxiana, neskatxa zoragari  
batek, oso txoratu nau.

Txagain ;Ordu onian, txaranpiña!  
Ixxira Ta nere arekin sutsuena negonian, onera itzul egin  
dit. Eta ni, Kaxiana gabe, ezin bizi niteke. Gabaz, ez  
det loik egiten; egunez beriz, ametsetan nabil.  
Orengatik bere bila etori naiz.

Txagain Ondo da. Bañan, Sorgin-erian laguntza izango  
badezu, zure asmoak, neskatx orekin, zuzenak izan  
bearko dute.

Ixxira Xuxen-xuxenak, jauna.  
Txagain Ez degu emen ontzat ematen, gizasemeak  
emakumea jostalutzat artzea, aurak marama bezela:  
ji ta ja batera ta bestera ibili, ta beñere erabakide  
egoki bat artu ez.

Ixxira Nik, bai, jauna.  
Txagain Neskatx ori bear badezu, zure emazte egiteko bear  
dezu.

Ixxira Bai jauna, bai.  
Txagain Eta gero, alkaren naitasunean beti bizitzeko.  
Ixxira ;Orelaxe da! Beorek gauzak, oso ederki esaten ditu.  
Txagain Zeruko ganbara batean, an dago zintzilik, urdai-  
azpiko bat. Alkarekin beñere asareik izan gabe, ta  
alkar maitatuaz bizitzen diran senar-emaztentzat da.  
Ta gizaseme batek ezkontzeko asmoa artzen  
duenean urdai-azpiko ura jateko asmoa artu bear  
du.

Ixxira ;Ori asmo edera! ;Urdai-azpikoa, mauka, mauka!  
Txagain Oraindik, urdai-azpiko artatik ez du iñork jan.  
;Oraindik oso osorik dago!

Ixxira Ba, Kaxianak eta nik, oso osorik jango degu: arek  
koxk eta nik koxk, arek koxk eta nik koxk

Txagain Orela dala, gure laguntza izango dezu. (*Argi-ontzia  
aulkian utzi ondoren*) Sorgin-eriko atarpe onetan,  
neskatxa donostiarrak, iru bakarrik daukazkigu.

Ixxira Oyetako bat izango da bada Kaxiana.  
Txagain Gañerakuak emendik uruti daude.

Ikkira                    Ez, ez: iru oyetako bat izango da.  
Txagain                Ondo da. (*Ilaztiari*) ¿Erakutziko al dizkazu?  
Ilaztiak                ¡Rau!  
                              (*Ilaztiak atzeratzen dira*)  
Txagain                Orain etoriko dira bada  
                              (*Txagain eskui-atze aldetik juaten da*)  
                              (*Ikkira'k alde egin arte laguntzen dio*)  
Ikkira                    ¡Eskerikasko jauna, eskerikasko! (*Biurtuaz*) ¡Au  
                              gizon atsegiña! ¡Ori da gizona, ori!... Bañan...  
                              ¿egiyetako gizona ote da gero? ¡Iduri orekin  
                              guziakin, kayeko neskaren bat ez bada! ¡Onenian,  
                              Kaxiana'ren lagun bat! ¿Galdetuko ote diyot?  
                              Orelako itxuretan agertuta, ¡nork ezagutu bada!



## Laugaren Irudia

### IV

#### Lengoak, Mari-Joxepa, Kontxita ta Sebastiana

Txagain            (*Eskuitik makil-nagusiarekin sartuaz*) Ona emen:  
Donostiyako iru damatxo.

Eresia 8 [Iru Damatxo]  
Irudi eresia

*(Kaxiana etoriko zayon itxaropenarekin Ixkira poz-pozik dago)  
(Mari-Joxepa, Kontxita ta Sebastiana, alkar besarkatuak eta  
eresiaren neurian kulunkatuaz eskuitik sartzen dira. Ixkira'k, oyen  
artian Kaxianik ez dagola ikusten duenian, itzik egiteko kemenik gabe  
gelditzen da. Neskatxak alderatzen zaizkio ta maitero agurtzen dute.  
Ixkira'k itzul egiten du ta baztar batian, bizkara emanaz gelditzen da.  
Neskatxak aldamenara joaten zaizkio ta para ugari egiñaz itximur  
egiten diote.*

*Asieran Ixkira ixilik eta geldirik egoten da, bañan, azkenerako,  
erneaturik uxiatzen ditu.)*

Izketa

Ixkira            (*Oso zakar*) ¿Zer biar dezute emen?

Mari-Joxepa    ¡Oi! ¡Zeorek deitu ez gaituzu bada?

Ixkira            ¡Utikan, titikume nardagariyak!

Mari-Joxepa    ¡Astua!

Kontxita        ¡Zakara!

*(Irurak pixka bat itzul egiñaz)*

Ixkira            ¡Mototsetik, eltzen badizutet!

Irurak            ¡E, lukainka! *(Itzul egiten dute, ta bat-batian,  
eskuian jiratzen dira)*

Eta krixkitin kraxkitin

Arosa krabelin

Ixkira            ¡Utikan!

*(Eskuitik juaten dira)*



ixkanbila dabilte... ¿E?... ¿Zer?... Ixkintoki'k ukabila altxatzen diyo (*Begiratzeari utzita*) ¡Ori ez dago ondo!

Txagain ¡Emakumeari ukabila altxatzea, gizonarentzat lotsagari da!

Ixkira ¡Begira zezen-suskuari!... ¡Nork esan, orela jari biar zuela!... ¡A zer nolakuak, Ixkintoki'ren kukurukuak!... ¡Gezura dirudi!

Orain, zera... Tribilis'eneko aldamenian bizi dan zera... Mendez edo ura. Bibote aundiyakin, eta, eriko nagusi balitz bezela, kale guziya bere mende artuta ibiltzen da. ¡Mendez dalako nonbait!

Etzetik ateratzen dan bakoitzian, emaztiari, kaletik, "¡*adios preziosa!*" esanaz juaten da. Emaztiak beriz, balkoitik, onela egiten diyo... (*Beatz muturakin musuak botiaz*) Ta ez bein bakarik... ¡kaletik alde egin arte!... Ikusi biar ditugu oyek ere. Ia, ia... (*Aztikiñakin begiratuaz*) ¡Oi! Mendez, emaztiari ezin itzul-egiñik dabil... Emaztiak arapatu du, ta, alpraketa batekin ebain-ebain egiten ari da... ¡Oi! Mendez belaunikatu egin da... ta emazte preziosak geruago ta pizkorago zatitzen du... ¿Zer diyo Mendez'ek?... ¡A, bai!... ¡Basta Pepita, basta! (*Aztikiñakin jotzera egiñaz*) ¡Xaxpiki txepela!

Txagain (*Aztikiña kenduaz*) ¡Zertara zuaz, gizona!

Ixkira ¡Orek, bai, gezura dirudiyela!

Txagain ¡Donostiyan ez dago gezura ta arkakusua besterik! (*Aztikiña Ilazti bateri ematen diyo*) ¿Gaitz oyek ikusi ondoren, zure asmoai eutzitzen diezu?

Ixkira ¡Len bañore bikañago! Kaxiana ta ni ez gera, oyek bezela, ibiliko. Gure arteko jardun, naigabe ta eztabaidak, naitasunaren indar atsegintsuak erabakiko ditu.

Txagain ¡Ta, orelako naigabetan, zeruko urdai-azpikoa gogoratu!

Ixkira Bai jauna, bai: urdai-azpiko artzaz gogoratzen, igaroko dira gure egunak.

Txagain Emen, Kaxiana gana iritxitzeko, suzko ibai ikaragari bat igaro bearko dezu. Alde guzietatik gara biziya, txinpart eziñegonak bizirik eretzeko zoriyan jaraikatuko zaituzte. ¿Oretarako almenik izango dezu?

Ixkira Bai; Kaxiana gana iritxitzea gatik, guzitarako almena izango det.

Txagain            ¡Gizon bulartsua, nik txalotzen zaitut! (*Ilaztiai*)  
                      Kaxiana ageri dan begirau  
Ilaztiak            ¡Rau!  
(*Ilaztiak aztikiñakin begiratzen dute*)  
Txagain            ¿Bada ezer?  
Ilaztiak            ¡Ordago!... Or dago.  
Ixxira             ¿Or al dago? Ia, ia...  
(*Ixxira'k aztikiñakin ikusi nai du, bañan Txagain'ek eragozten dio*)  
Txagain            Esan dizut: Kaxiana ikusi nai badezu, suzko ibai  
                      batetik igaro bearko dezula.  
Ixxira             Bai jauna: ala da.  
Txagain            Neronek lagunduko dizut. Bateltxo batean joango  
                      gera.  
Ixxira             Ta batela... ¿nik gidatu biar al det?  
Txagain            ¡Ez! ¡Ni naiz Kapitan-piloto!

Eresia 9 [Ni naiz kapitan-piloto]  
Azken eresia

                      ¡Estalkia gorau!  
Ilaztiak            ¡Rau!

(*Atzeko estalkia igotzen da ta suzko ibaia agertzen da. Aurean bateltxo bat dago ta bertan Txagain ta Ixxira sartzen dira. Bateltxoa ezkerrean ezkututzen da. Ilaztiak beren aztikiñakin bateltxoari begira gelditzen dira. Une batian ibaia su ta gar ikusten da.*)

Estalkiak jeixten dira  
Ezkuta-zapia jeixten da

Lenengo Egintzaren Amaia

## BIGAREN EGINTZA

Laugaren Laukia  
Lana ta Dantza

Eresia 10 [Sorgin-dantza]  
Sarerao eresia ta dantza

*(Estalkiak igotzeakoan Sorgin-eriko gela apain bat azalduko da.)*

Lenengo Irudia

I

Sorgiñak

*(Lau Sorgin eskuitik eta beste lau ezkeretik sartuko dira, ta leroan binaka jariko dira.*

*Beriala, lenengo aldiz, Sorgin-dantza egingo dute, ta ondoren jiran ibiliko dira, ojuka ta karaxika.*

*Jariko dira ostera lenengo eran eta bigaren aldiz Sorgin-dantza egingo dute, ta beriz karaxika jiran ibiliko dira.*

*Lenengo erara biurtuko dira, ta irugaren aldiz Sorgin-dantza egingo dute, ta beriala karaxi aundiak egiñaz eta besuak luzatuaz jira beri bat egin ondoren, eskuitik juaten dira.)*

## Bigaren Irudia

### II

Andre Joxepa Tronpeta eta Ixkira

#### Izketa

*(Andre Joxepa Tronpeta, eregin jantzian, eta Ixkira, ezkeretik sartzen dira.)*

Ixkira                   Sardin-zara bezela; suzko ibai orek kixkali nau...  
¿Zubek, ez al zaituzte eretzen?

A. J. Tronpeta       Ez digu ezertxore egiten, eztiki-eztiki milixkatu  
baizik.

Ixkira                   ¿Nola izan liteke ori?

A. J. Tronpeta       Nola izan liteken, geyegizko jakin-naya da.  
Aurerapen aundiyak egin dituzuten ustean zaudete,  
bañan, ¿zer dira aurerapen oyek guziyak, sorgiñen  
aurerapen zineskaitzen aldamenian?

Ixkira                   Ori ala da.

A. J. Tronpeta       Oso zoraturik zabilzate orain, gizonak zerbait  
egatzen ikasi dezutelako. ¡Noiztik ordia dabilza  
sorgiñak eratz gañian, aidian!

Ixkira                   ¡Zuen eratzak, oraingo aurerapen guziyak garbitzen  
dituzte!

A. J. Tronpeta       Bañan, etzera zu, sorgiñen aurerapenak ikastera  
etori noski...

Ixkira                   Egiya da.

A. J. Tronpeta       Ta zure asmoaz itzegin zagun.

Ixkira                   Badakizu, Andre Joxepa...

A. J. Tronpeta       Bai, badakit guziya, ta ez daukazu gai oretaz ezer  
esan bearikan. Bakarrik, adierazi nai dizut,  
ezkontzeko asmoa artzen danean, ez dala jostaketa  
bat bezela artu bear, gaurko egunian zorigaitzez  
askok artzen duten bezela.

Ixkira                   Bai, apuletan ibiltzia balitz bezela.

A. J. Tronpeta       Ezkontzea: sendi bateratzea da; ta sendi  
bateratzeakoan, bere euspenari begiratu bear zayo.  
Sendiaren eutsipena, lana da.

Ixkira                   Ta oretxek lanak ematen dizkigu.

A. J. Tronpeta       Garai guzietan, Sorgiñak, zale aundia izan diote  
lanari. Gugaz zernai gauza esango da, bañan, ez da  
beñere entzun, Sorgiñak alperak izan diranik.

Ixkira  
A. J. Tronpeta Ez orixe...  
Betri Sorgiñak goraldtu izan dute lana. Ta ludira irtetzen diranian ere, lanean arduratu azitzeko izaten da. Ez du besterik esan nai, mendi oyartzunen ereskitxuak berizturik ainbeste aldiz entzungo zenduen gure oiur onek...

Abots bat  
A. J. Tronpeta (*Barenen*) Eooo... Eooo... Eooo...  
Gauza bera adierazten dute, goizaldi alaiean, mendi baztareko erekatxo beritxuan, zapi txuri txuriyak aztindurik, sorgiñak ¡Xiii! ¡Xiii! ¡Xiii! aritzen diranean. ¡Gizakiak lanerako jayoak gera! ¡Ekin lanari, gizonak! Bañan... ¡ikaratu egiten omen dira! ¡Zorigaitzez, ainbeste dira ludian, lanak ikaratzen dituenak!

Ixkira  
A. J. Tronpeta Ni ez beintzat.  
Alai-aldiak ere bear dira, bai noski; bañan aurretik lana dala. Orengatik, sorgiñen azalgaia da: Lana eta dantza.

Ixkira  
A. J. Tronpeta Nik, Kaxiana'ren jabe egitian, lanari kupirik gabe ekingo diot; eta Kaxiana maitatzen eta gurtzen igaroko det nere bizi guziya.  
Asmo oyek, zu bezela, gayian dauden guztiyak artu izan dituzte. ¡Orelako asmoak, bata bestiaren gañian jari izan balira, mendirik galurena baño gorago igoko ziran! ¡Bañan asmoak ain gora igo aren, izanak oso bean gelditu izan dira!

Ixkira  
A. J. Tronpeta Nerekin ez da bada orelakorik gertatuko.  
Zurekin gertatuko da, beste guztiakin gertatu dana.

Ixkira  
A. J. Tronpeta Ez, Andre Joxepa, ez.  
Emakumearen jabe egin arte, bere gona ondotik ezin alde egin; ta ezkondu bezin laster andre gajua zokoratuta laga.

Ixkira  
A. J. Tronpeta Nik ez det Kaxiana beñere lagako; ta satora juan biar badu ere, nerekin joango da.  
¿Zenbat gizon ezkondu, beren emaztiakin ikusten dira gaurko egunean? Eta bitartean edozein ume mukizu or dabil aldamenetik neska bandera bat artuta. Gezurik gabe esan liteke: gaur Donostiko kalietan emakumiakin ikusten diran gizonezkoak, emakume baten jabe ez diran gizasemeak dirala. ¡Emakumerik ez dutenak, emakumia geyena azaldu!

Ixkira  
A. J. Tronpeta Neronek ere orixe nai nuke bada...  
¿Nola?

Ikkira Emakumerik ez det eta, nik nai detan neskatxa azaldu dezaidala.

A. J. Tronpeta ¿Kaxiana gatik diozu?

Ikkira Noren gatik bada, buruban besterik ez dabilki eta.

A. J. Tronpeta Bada, ori, Etumeta'ko Baso-Jaunak erabaki bearko du. ¿Aitzea izango dezu noski, Baso-Jaun aundiaz?

Ikkira Baso... aundiaz... Guk... baxo erdiya ta txikiya bera.

A. J. Tronpeta Ez diozu antzik eman, nere esanari. ¿Baso-Jauna zer dan ez al dakizu?

Ikkira Nik ez.

A. J. Tronpeta Ekaitz ikaragariak lura dardarka astintzen duen garai ilun artan, ibareko bide-xigor loitsuetatik zoazela, abots indartsuarekin, zure izenez deitzen badizu; ta gero, zure izen ori mendiz-mendi oyartzunen ego ariñaz ibilirik, beriztuta entzuten badezu; zure izenez deitu dizuna badakizu nor dan: Baso Jauna da.

Aizearen txistu barenkorak eta zurunbiloak basoko zugatz zaintzuai sortu arazitzen diozkat abarotsak erdi zoraturik zaukatenean; beste ots guzien gain, entzuten badezu, arkaitz sendoak berak mugi azitzen dituen deadar burunbatsu bat; jakiña da nor dan: Baso-Jauna da.

Mendi aldapa zorotzean zoazela, iñongo aldetik iñor ageri ez aren, zure atzetik, zure ondo-ondotik datoren norbaiten uratzak entzuten dituzunean; zure oñak egiten duten txipli-txapla irixtakorai, beste txipli-txapla sendoagoko batzuk, neuri berean erantzuten diotenean; zu nora joan ara jaraitu, beñere ezer ikusi ez eta beti ots ezkutuko ayek entzuten dituzunean; ez galdetu nor dan: Baso-Jauna da.

Etumetako Baso-Jaun ori da, bada, emengo Jaun eta Eregea.

Ikkira ¡A zer zalapartaria izan biar duen Jaun orek!

A. J. Tronpeta Aren eskuetan dago bada zure ausia. Nik itzegingo diot, eta zer erabakitzen duen ikusiko degu.

Ikkira Kaxianik gabe ezin bizi nitekela esaiozu. Ura biar detala arayak beita bezela, katubak birika bezela, nik dakizkitan batzuek eskupekua bezela...

A. J. Tronpeta Biar dana esango zayo. Bitartean itxoin zazu emen. Eta ezer gertatuko balitzaizu, laritasunen batian arkituko baziñake, zer oju egin bear dezun erakutzi dizut.



Ikkira                      Bai: Andre Joxepa Tronpeta... Eregiñaren lantzeta.  
A. J. Tronpeta        Eta oju ori egitean, zeran tokiyan zerala laguntzera  
                                 etoriko natzaizu.  
Ikkira                      Eskerikasko, Andre Joxepa.

*(Andre Joxepa Tronpeta ezkeretik joaten da.)*

## Irugaren Irudia

### III

#### Ixkira ta Potxolo

Ixkira                    ;Ai Kaxiana! Zugana alderatzen nuala iduritzen zait.  
;Ez al det orain tira-birik egingo! (*Eskuitik Potxolo sartzan da Sorgin jantzian. Beti dantzan ibiliko da abestuaz bere antzera tu-tu – kurukutuku... Lenbiziko sareran, abestuaz, Ixkira'ri jira egingo dio.*) ;Oi! ;Nor da au?

Potxolo                    (*Alde batian pixka bat geldituaz*) ;Ixkira! (*Jaraitzen dio bere dantzari*)

Ixkira                    ;E! Nere izena! ;Au ote da Baso-Jauna!

Potxolo                    Ez nak ezagutzen ;Rufino nak!

Ixkira                    ;Rufina!

Potxolo                    ;Rufino! ;Ez al aiz gogoatzen? ;Rufino! ;Potxolo!

Ixkira                    ;Potxolo! ;I, Potxolo!

Potxolo                    Ni, bai: ni

Ixkira                    ;Potxolo! Bañan i ez itzan Abana'ra juan?

Potxolo                    Bai, baña, orain ez niok an.

Ixkira                    Ikusten diat.

Potxolo                    Orain emen niok

Ixkira                    Bai ta itxura ederian. ;Neska biurtu al aiz?

Potxolo                    Ez; baña, ziri edera sartu ziuatet, eta neska banitz bezela artu niotek.

Ixkira                    Bañan... ;zer asmorekin etori aiz onera?

Potxolo                    ;Zer asmorekin? Esango diat... (*Dantzan abestuaz jira egiñaz*) ;Zugaramurdi'n zer gertatu zan, ba al dakik?

Ixkira                    Euriya egin zuela.

Potxolo                    Emen ere egiten dik.

Ixkira                    Naikua.

Potxolo                    Ez dek ori. Zugaramurdi'n mutil gazte bati, gaba gañera etori zitzaokan; nora joanik etzikan, eta zugatz baten barenen sarturik, bertan lo gelditu ukan.

Ixkira                    Emen txalupetan egiten dutenak bezela.

Potxolo                    Bai. Bat batetan zalaparta nabarmen batek esnatu zikan, ta... ;zer zala uste dek?

Ixkira                    ;Arkakusuak!

Potxolo                    Bai zera. Bere ondo ondoan, Sorgiñak bilera egiten ari itukan, eta zituzten ixilpeko guziyak esan

zizkitekan. Ala jakin zikan, Italian printzesa bat oso gaxo zegola, bere baratzan zegon xapo baten gatik, eta nai ta nai ez il biarko zuela.

Ixxira            ¡Ori gaitza, e! ¿Ori, irixipela ta pixtota bañore txaragua izango dek!

Potxolo           Esango nitek. Gure mutila, kinkik egin gabe, egondu ukan, iñork nabaitu etzezan; eta Sorgiñak alde egin zutenian, jo zikan Itali'ra, baratzan zegon xapua il zikan, printzesa sendatu ta berarekin ezkondu ukan. (*Dantzán, abestuaz, jira egiten du*)

Ixxira            ¿Ta ik, orekin, zer ikusi daukak?

Potxolo           Ia beste orelako ixilpekoren bat jakiten ote detan, gero Kai-aribako eregiñaren alabarekin ezkontzeko.

Ixxira            ¿Antxelma'kin? ¡Gaur goizian, goiz asko, an zebilekan arandei aurian, akulak saltzen!

Potxolo           Ta, ori, ¿zergatik dala uste dek? Gaztelupeko arkaitz tartian dagon xaporen baten gatik. Bestela, zer uste dek ik: Kai-aribako eregiñaren alaba, beste edozein eregiñen alaba bezin printzesa izango ez litzakela?

Ixxira            Ik ala diyok (*Potxolo'k dantzán, abestuaz, jira egiten du*)

Potxolo           Eta bitartian, emen ederki bizi nak. Nexka-xarakin, mutil-zarakin baño askoz obeto arkitzen dek bat. Mutil-zarak berekoyak, zetotsuak, zitalak izaten dituk; nexka-xarak beriz, maitekorak, biozberak, xamurak. ¡Ui, nexka-xarak besterik dituk! (*Dantzán, abestuaz, jira egiten du*)

Ixxira            Ta i, i... Ik onezkero emengo beri jakingo dek noski...

Potxolo           Nola, ez...

Ixxira            Zerbait esaidak bada.

Potxolo           Esango diat (*Dantzán, abestuaz, jira egiten du*) Gu nexka-xarak gaituk.

Ixxira            I, lenbiziko, aizela...

Potxolo           Ni... ugaz-nexka-xara.

Ixxira            Ala biarko.

Potxolo           Bada, guk, Lamiñak bigaltzen diguten xapo-mama gordetzen diagu; ondo begiratu berari; ta biar danian, bakoitzari biar duena eman.

Ixxira            Eta, mama ori, ¿zertarako dek? ¿Agiñeko miña kentzeko?

Potxolo           Bai, zera; mama orekin gorputza igurtzita, aidian ibiltzen gaituk.

Ixxira            Ara...

Potxolo           ¡Ez dek oraindik sortu ori bezelako *gasolinik!*

Ikkira Potxolo ¡Ez ta sortuko re!  
Orain, Lamiñaz, itzegingo diat. Lamiñen egiteko bereziena, Baso-Jauna gurtzea ta omenaldutzea dek. Gañera, bakoitzak, xapo bana, bere aura balitz bezela azi biar izaten dik.

Ikkira Potxolo ¿Beren aura balitz bezela?  
Ikusiko baituke, zer lastanak, zer limurketak egiten dizkaten. Or aritzen dituk, xapuari esanaz: ¡Nere biyotzeko koxkarabilo pozgariya! ¡Nere eraiñetako axukre koxkorik goxuena!

Ikkira Potxolo ¡Xapuai!  
Abek erantzun ere egiten ziotek...

Ikkira Potxolo ¡Erantzun! ¿Xapuak izketan ba al zekitek ba!  
Aur txikiyak bezel bezelaxe. ¡Baña, oso tripazaiak dituk! Etzekitek besterik esaten, ez bada: nik txitxia nai det; mama goxua bial det; kokolo ekali...

Ikkira Potxolo Bai, ta gero beste ura, barenak garbitzeko.  
Jantzi beriz, apañago, egiten dizkitek. Ikusiko bauke zer soñeko garesti, ikusgari, aberatsak...

Ikkira Potxolo Oraingo emakumiak bezela.  
Ori, bai; jantzi bakar besterik etziotek egiten; bada jantzi ori ez zaotek, ez zikindu, ez ajatu, ez purukatu egiten. Jantzi bakar orek bizi guziyan irauten ziotek.

Ikkira Potxolo Orduan ez dituk, oraingo emakumiak bezela.  
Gauza arigariya dek.

Ikkira Potxolo Ta, i... ta, xapo oyek non arkitzen dituzute?  
Emen inguruan ere bai. Baña biar aña arkitzen ez bada, xapuak Azpeititik ekartzen dizkitek.

Ikkira Potxolo Ala biarko.  
Beste pila batekuak Maitagariak dituk. Oyek emendik uruti zioztik. Neskaxa gaztiak... mutil, ikusiko baituke... ¡onlakuak! (*Beatz muturak abora eramanaz*)

Ikkira Potxolo Eta Maitagarietan maitagariena, nere Kaxiana.  
¿Onlakua, e? (*Beatz muturak abora eramanaz*)  
Ikkira (*Lenbizi beatz muturak abora, ta gero eskua biotz gañera eramanaz*) ¡Onlakua, ta onlakua! Neskaxa ona, maitekora, zintzua, langilia, argiya, azkara...

Potxolo Bai, bai, bai. ¿Ta nola daukak emen?

Ikkira Bere bila etori nak, eta orain juan dek Andre Joxepa Tronpeta, Baso-Jaunari itzegitera.

Potxolo Orduan, bide onetik ua.

Ikkira Ala uste diat.

Potxolo Gaiztuenak, azkenekuak dituk: ¡Aztiyak! ¡Ayek bai gaiztuak dirala! ¡Ui! (*Dantzán, abestuaz, jira egiten du*)

Ixxira ¡Aztiyak, e!

Potxolo Atso zar, ortz-uztel, azkazal-luze, begi-gori, jibolin-tranka batzuek. Gaitz egiteko zer asmatu etzekitek. Oyen eskubetan erori ezkeru galduba aiz.

Ixxira Ez diat bada galdu nai.

Potxolo Viii (*Sorgin txixtua egiñaz*) egiñaz, zitalkeri mota guziyak egiten dizkitek. Oyek dituk begizkua sortu azitzen dutenak.

Ixxira ¿Oyek al dira? Orduan Donostiyan izan dituk.

Potxolo Balitekek...

Ixxira Izandu dirala, ezagun dek. Oroipen edera utzi ditek.

Potxolo Gero, suge, suangil, bare, barakulo ta musker pila bat bildu, ta, ayekin, gaitz guziyen zumua duten autz batzuek egiten dizkitek.

Ixxira Beren ayek artu, ta viii... (*Sorgin-txixtua egiñaz*) egiñaz irteten dituk; eta onlako baserian, bere seaskatxoan dagon aur zoragaria ilta uzten ditek; bestian, zeruko edertasunak arpegián dauzkan neskatz lirainari gaitza sortu arazitzen ziotek, eta argiya aitutzen dan bezela neskatz gajua betiko aitutzen dek; aruntzago, ukuluan dauden abere guztiak, ezagutzen ez dan gaitz batez kutsutu, ta beriala iltzen dituk; zelayetara joan ezkeru, gari guziyak galduta uzten dizkitek; itxasora badijoaz beriz, ikaragarizko galarenak sortu, ta ontzi ta gizon betiko urpean gelditzen dituk. Itz batean: asmatu litezken txarkeri guziyak egiten dizkitek. Ixxira, ez aiyela oyen eskubetan erori, bestela iriak egin dik. (*Dantzán abestuaz ta jira egiñaz eskuira juaten da, ta an une batian gelditzen da.*) ¡Ixxira! Badakik, e... Viii... (*Sorgin-txixtua egiñaz*) oyekin arkitzen ba aiz ¡alde! ¡alde! (*Dantzán abestuaz juaten da*)

## Laugaren Irudia

### IV

#### Ixxira ta Andre Joxepa Tronpeta

- Ixxira (Potxolo juan dan aldera begira) Oyekin arkitzen banak, bazekiat zer esan biar detan: ¡Andre Joxepa Tronpeta, Eregiñaren lantzeta! (Ixxira: "Andre Joxepa..." esaten asten danian, Andre Joxepa Tronpeta ezkeretik sartzen da; ta Ixxira'k burua jiratzian ikusten du) Ta, ara bera.
- A. J. Tronpeta Etumeta'ko Baso-Jaun aundiyak zerorekin itzegin nai omen du, ta, bere aurera azaldu bearko dezu.
- Ixxira ¿Esan al diozu, Kaxiana'ren bila etori naizela ta...?
- A. J. Tronpeta Badaki... Ta, zuk... Baso-Jaun aundiaren aurian arkitzen zermanian, txapela atera ta begirapen menpitsuarekin egon biar dezu.
- Ixxira (Belauniko eta Aitaren... oso gaizki egiñaz) Au re egin biar al da?
- A. J. Tronpeta Ez: ori, Jaungoikoari bakarrik zor zayon omena da. Baña, oartu bear zaitut: Baso-Jauna abarots ikaragari batekin ojuka asten bazaizu, ixil-ixilik, kinkik ere atera gabe egon biar dezula. Orduan zerbait esango bazenio, apurtuko zinduke.
- Ixxira ¡A zer egozkogora izan biar duen! Ixilik egongo naiz.
- A. J. Tronpeta Guazen bada

(A. J. Tronpeta aurretik eta Ixxira atzetik, ezkeretik juaten dira)

Estalkiak jeixten dira

Bostgaren Laukia  
Etumeta'ko Baso Jauna

Eresia 11  
Bitarteko eresia ta dantza

Lenengo Irudia

I

Baso-Jauna, Emakume-gutzaleak, Lamiñak

*(Estalkiak igotzeakoan Baso-Jauna bere bakaulkian exerita agertuko da. Pelo serenua bera da. Ile luzea burutik zintzilik izango du, ta gorputza ere iletsua. Oñetan abarkak, eta mantarak izteretaraño igotzen diranak eta lokariak goraño jiraka jariak. Gorputzian laruzko jantzia, besoak agerian utzirik, eta besoak beriz ilez josiak iya larurik ageri ez dala. Gañean kapusai ilun bat, burukoa, buruan atze aldian jaria. Eskuetan makil sendo bat.*

*Aldamenetan zaintzale, lau emakume gutzale aztamakilakin.*

*Gero sartuko dira Lamiñak, iru eskuitik eta iru ezkeretik, eta dantza egingo dute Baso-Jaunari agurpenak egiñaz.*

*Dantza amaitzian, lamiñak etori bezela joango dira.)*

## Bigaren Irudia

### II

Baso-Jauna, Emakume-gutzaleak, Andre Joxepa Tronpeta eta Ixkira

#### Izketa

(A. J. Tronpeta ta Ixkira ezkeretik sartzen dira. A. J. Tronpeta'k Baso Jaunaren aurera joan eta agurpen ikusgari bat, besoak luzatuaz egiten dio. A. J. Tronpeta ezkerera biurtzen da. Ixkira aureratu ta A. J. Tronpeta'ren antzera agurpena egiten asten da. Oso baldar egiten du.)

Baso-Jaun            ;Ixkira! ¿Igari egitera al ua?  
Ixkira                (Baso-Jaunari begiratuta) ¡Oi! ¡Pelo serenua!

(Baso-Jaunak abarots izugari bat egiten du)

A. J. Tronpeta     (Ixkira'ri eldu ta ezkerera eramanez) ¡Ixo!

Baso-Jaun         ;Ni naiz Baso-Jauna!

A. J. Tronpeta                     ;Baso-Jaun indartsua  
  Sorgin-erian goitua!

(Ixil aldia)

Baso-Jaun         ;Ez al nikan nik esan: Sorgiñak baztar guzietan  
  bazebiltzala: batzuek tankera batian, bestiak  
  bestelako eran, asko itxura nabarmenetan; eta  
  gutxiyena uste zana, sorgiña zala.

Ixkira             Bai.

A. J. Tronpeta     (Ixkira'ri erakutziar) Bai, jauna.

Ixkira             Bai, jauna.

Baso-Jaun         Orduan, ik gutxiyena uste ukana ¿nor ukan? ¡Ni! Ta,  
  ni, Baso-Jauna bera.

Ixkira             Baña, zuk...

A. J. Tronpeta     Beorek...

Ixkira             Zerorek... ¿esan ez zenidan: Sorgiñakin gauz onik ez  
  zegola; ezin txinistu litezken alako txarkeriak egiten  
  dituztela...?

Baso-Jaun         Ori, Pelo serenuak esan zikan.

Ixkira             ¿Ez al zera bada zu, Pelo serenua?

(Baso-Jaunak abarots izugaria egiten du)

A. J. Tronpeta     (Ixkira'ri elduaz) ¡Ixo!

Baso-Jaun         ;Ni naiz Baso-Jauna!

A. J. Tronpeta                     ;Baso-Jaun indartsua,



## Sorgin erian goitua!

(*Ixil aldia*)

Baso-Jaun ¿Ez al nikan nik esan, Bretxa'ko aldamenian, poliziyako bat asto zar batekin izketan ikusi nuela?

Ixkira Bai.

A. J. Tronpeta Bai, jauna.

Ixkira Bai, jauna.

Baso-Jaun ¿Ta, asto zar ura, zer ukan?

Ixkira Sorgiña

Baso-Jaun ¡Ederki! Ta astua ukulura eramán zutenian, ¿zeñek jan zikan lastua?

Ixkira Sorgiñak.

A. J. Tronpeta Astua...

Ixkira Andre Joxepa...

Baso-Jaun Astua... astua...

Ixkira Bañan, ni...

Baso-Jaun ¡Astuak jan zuela!

Ixkira ¡Oi! ¿Nola, ordia?

Baso-Jaun Ez diyok antzik ematen. I, Astigaraga'ra juan izandu aiz, ¿ez da ala?

Ixkira Bai...

A. J. Tronpeta Bai, jauna.

Ixkira Bai, jauna.

Baso-Jaun An naikua sagardo eran ondorian, Donostira etori, ta, kalietan maruaka, ta zilipurdika, ezkeretik eskuira, ta eskuitik ezkerera kaliak neurtzen ibildu izan aiz...

Ixkira Baliteke...

Baso-Jaun Maruaka ta zilipurdika zebilena, ¿zein zan?

Ixkira Ni.

Baso-Jaun ¡Sagardua!

Ixkira Ezin zait ori buruan sartu

Baso-Jaun Eztariko zuluán sartzen zaik bada.

Ixkira Alperik...

Baso-Jaun Ala egon aizenian, muturez aurera zeraldo erorita, biyak bat egin izan dezute; baña, alare, sagardua, sagardua ukan, ta, i, beriz... kupela.

Bada, nik ere, Pelo'rekin batzuetan bat egin aren: ura dek Pelo serenua, ta ni, Baso-Jauna.

Ixkira Bai, ni kupela, ta zu basua.

Baso-Jaun Lenagore esan nikan, eta, gai ontan oso paxano ago. Nesken ondolik ibiltzen pizkoragua izan ez baitzan, onezkero Kaxiana'ren loratza galduba izango ukan.

Ixkira Ezin galdu ordia, beti buruan dabilkit eta.

Baso-Jaun           Burua galtzen ez badek...

Ixxira               Nik burua galtzen badet Kaxiana dagon tokian arkituko dute.

Baso-Jaun           Bai, ik, buruakin edo ankakin, Kaxiana dagon tokira juan nai dek.

Ixxira               ¡Ori bai dala egiya!

Baso-Jaun           Bada... kirten xamara aiz, bañan, ezagutzen diat, Kaxiana maite dekala...

Ixxira               ¡Txoratzeraño!

Baso-Jaun           Mutil-zarena ala izaten dek: nekez, bañan, orduan sendo.

Ixxira               Nere maitasuna ala da; sendo, pixkor, bizi, sutsua.

Baso-Jaun           Gañera, ezagutzen diat, Kaxiana'ri ondo egingo diokala.

Ixxira               Bere amonak baño re obeto.

Baso-Jaun           I, beriz, xoro xamara aiz, bestia beriala nagusitu zaik, eta zorionekoak izateko bidean jariko zeratela uste diat.

Ixxira               ¡Bai, orixe!

Baso-Jaun           Orengatik, ire eskapena ontzat artzen diat, eta baimena emana ziok. (*A. J. Tronpetari*) Andre Joxepa Tronpeta: Kaxiana'ren gana dijuala; bañan, oretarako dakizkizun agintzak bete ondorian.

A. J. Tronpeta       Esan bezela egingo da.

Baso-Jaun           (*Gauza amaitutzat emanaz*) ¡Erabaki det!

Ixxira               Eta nik orain...

A. J. Tronpeta       (*Ixildu azirik*) ¡Ixo!

(*A. J. Tronpeta'k, besoak luzatuaz, Baso Jauna beriro agurtzen du. Ondoren, berdin egin nairik Ixxira asten da, ta oso baldar egiten du.*)

Baso-Jaun           ¡Ia, orain, *sanbula* egiten dekan!

Ixxira               (*Agurpena egin ondoren, bere pozarekin kabriola bat egiñaz.*) ¡Eskarikasko, Pelo!

(*Baso-Jaunak abarotz izugaria egiten du*)

Baso-Jaun           ¡Ni naiz Baso-Jauna!

A. J. Tronpeta       ¡Baso-Jaun indartsua  
Sorgin-erian goitua!

(*Ixxira aurretik eta Andre Joxepa Tronpeta atzetik, ezkerera juaten dira*)

Estalkiak jeixten dira

Seigaren Laukia  
Neska-zaretan

Eresia 11  
Bitarteko eresia

*(Estalkiak igotzeakoan Laugaren laukiko lur-peko gela bera agertuko da.)*

Irudi Bakara

Andre Joxepa Tronpeta, Ixkira. Gero Sorgiñak. Geroxiago Rufina.  
Azkenean Potxolo.

Izketa

*(Andre Joxepa Tronpeta, ondotik Ixkira duela, ezkeretik sartzen da.)*

A. J. Tronpeta	Entzun dezu: Kaxiana'ren gana juango bazera, oretarako dauden agintzak bete bearko dituzu.
Ixkira	Nai dezun guziya beteko det.
A. J. Tronpeta	Zuk igaro bear dezun bidea, mutil-zarak beste ludira juateko igarotzen duten bide bera da.
Ixkira	¿Ortik juaten aldira mutil-zarak?
A. J. Tronpeta	Ortitzek
Ixkira	¡Orduan ez naiz bakarrik izango! ¡Orain dan aña mutil-zarekin! ¡Eta jostalu xamarak badira obe!
A. J. Tronpeta	¡Ez dute jostaketako gogorik izaten!
Ixkira	¿Zer bada?
A. J. Tronpeta	Bide guzian neska-zar bat bizkarian dutela juaan biar izaten dute.
Ixkira	¡E!
A. J. Tronpeta	Zuk ere orela juaan biarko dezu.
Ixkira	¡Ni! ¡Ni ez naiz, ordia, mutil-zara! ¡Ni, ezkontzeko asmoakin nator onera!
A. J. Tronpeta	Zure asmoak, zuk nai dituzunak izango dira; bañan, zuk, berogei urte badituzu, ta oraindik mutil-zar zaude.
Ixkira	Berogei urte osatu arte, Kaxianik ezagutu ez detalako. Berogei urtez lenagotik ezagutu izan banu, orain berogei urte ezkonduko nitzan.
A. J. Tronpeta	Bai, jayo baño len.
Ixkira	Ni onera, neskatxa gaztiaren bila etori naiz, eta ez neska-zara are-kon-kon ibiltzera.

A. J. Tronpeta Bada, neskatxa gaztia arkitzeko, neska-zara eraman biarko dezu.

Ixkira Eramango det nai badezu, bañan, besotik, emakume aberatsak eramaten dituzten bezela.

A. J. Tronpeta Ez, ez; bizkarian, bizkarian.

Ixkira Bañan, Andre Joxepa...

A. J. Tronpeta Bide ortatik ez da oraindik mutil-zarik igaro, neska zara bizkarian eraman gabe; ta ez zera zu lenbizikua izango.

Ixkira Lenbizikua ez izanak ez dit ajolik, bañan, ¿nola nai dezu bada?... Neronek, neska-zarari onez-onian itzegingo diyot, eta berak ere bizkarian baño, nere aldamenian juan nayagoko du. ¡Nik esango dizkatan gauza paragariyakin!

A. J. Tronpeta ¡Oretarakoxe daude berak ere! ¡Mutil-zaren bizkarian juateko zorutzen egoten dirata!

Ixkira Ori ezin liteke...

A. J. Tronpeta Bat orela dijoanian, beste guztiyak oju egiten diyote: ¡Orela bizi bagiña beti!

Ixkira Daramana baño obeto biziko lirakela, badakit.

A. J. Tronpeta Orain ere, zuk juan biar dezula jakiten dutenian, zalaparta dariyotela emen etoriko dira.

Ixkira Nik juan biar det, egiya da; bañan, neska-zarak ez daukate zertara juanik, eta nere bizkarian gutxiyago.

A. J. Tronpeta Gañera, entzun diozun bezela, Baso-Jaun aundiak orela agindu du; ta aren aginduai ezin jardunik egingo diegu.

Ixkira Eta nik neska-zara bizkarian eramateko orde, ¿ez al nazake neskazarak, ni bizkarian eraman?

A. J. Tronpeta ¡Ez ta iñolare!

Ixkira Besterik ezin bada, txandaka.

A. J. Tronpeta Ez, ez, ¡Zuk bizkarian eraman biar dezu!

Ixkira ¡Ai, mutil-zarak! ¡Zuetzaz kupitzen nak! ¡Zer ikusteko zaudeten ez dakizute!

*(Barenen, eskui aldian, oju ta irintziak.)*

A. J. Tronpeta ¡Ara: badatoz! ¡Beriala emen dituzu!

Ixkira Andre Joxepa: au ez dago ondo. Beren bizi guzian mutil-zar izan diranak, eta ni, ezkontzeko andre-gaiaren bila natorena, ez genduke berdin izan biar!

A. J. Tronpeta Eta etzerate berdin izango. Ayek, egokitzen zayen neskazara eraman bear izaten dute. Zuk, aukeratzeko eskubidea badezu.

Ikkira Aukeratu...

A. J. Tronpeta Zuk, nai dezuna eramango dezu.

Ikkira ¿Ta inor nai ez badet?

A. J. Tronpeta Kaxiana'ren gana jua gabe geldituko zera.

Ikkira ¡Ori, ez!

A. J. Tronpeta Ara: emen dituzu... (*Sorgiñak beren eratzakin saltaka ta ojuka eskuitik sartzen dira.*) Aukeratu orain.

Ikkira (*Sorgiñai begiratu ta oso ariturik*) Aukeratu...  
 ¡Akulumendi aben artian, nola aukeratu!  
 Donostiyan ikusten dira nexka-xar batzuek...  
 ¡pertzentaguak! ¡pinpiñaguak! ¡lirañaguak!  
 ¡moñoñuaguak! Ayetako bat poxik eramango nuke!  
 Bañan, elefante abetako bat, ¡nork artzen du bizkarian! (*Sorgiñai beriro begiratu, ta A. J. Tronpeta'ri*) Andre Joxepa:... ta... ¿uruti xamar jua biar al da?

A. J. Tronpeta ¡Ikaragarizko uruti!

Ikkira ¡Lertuko naute! (*Sorgiñai beriz begiratuaz*) Bata bestia baño kankaluago, bata bestia baño astun eta baldarago... ¡Bañan, guziyen artian kaxkar xamar bat ez arkitzia! (*Bat batetan gogoratuaz*) ¡A! Orain gogoratzen naiz. Potxolo aukeratuko det. Xaxpikiya da, ta sei librako ogiya baño ariñagua izan biar du...  
 ¡Ori egingo det! (*A. J. Tronpeta'ri*) Andre Joxepa: aukeratu det. ¡Datorela Potxolo!

Sorgiñak (*Ojuka, eratzakin juaz*) ¡Ui!

A. J. Tronpeta Emen izen goitirik ez degu. ¿Kayian zaudela uste al dezu? ¿Zure etxian bezela guztiyak izen-goitiyakin dirala?

Ikkira Gure etxian ere ez dituzte guztiyak.

A. J. Tronpeta ¡Guztiyak!

Ikkira ¡Ezetz!

A. J. Tronpeta ¿Nola deitzen diote zure aitari?

Ikkira Ukalondo.

A. J. Tronpeta ¿Ta, amari?

Ikkira Enplasto

A. J. Tronpeta ¿Ta isebari?

Ikkira Expain-me.

A. J. Tronpeta ¿Ta arebari?

Ikkira Pexpunte.

A. J. Tronpeta ¿Ta, etxian dezuten lengusuari?

Ikkira Makarax.

A. J. Tronpeta Ora, bada...

Ikkira Bai, baña... katubari Patronila, deitzen diogu ordia.  
A. J. Tronpeta Dana dala, emen izen goitirik ez degu; ta ez guri orelakorik aitatu.

Ikkira Izenarekin esango det bada. Datorela Rufino.  
Sorgiñak (*Ojuka, eratzakin juaz*) ¡Ui!  
A. J. Tronpeta Gizonezkorik emen ez dago.  
Ikkira Egiya, egiya. Txirixtatu egin naiz. ¡Ala ezpanuartzen!  
A. J. Tronpeta Esan bear dezuna, zuzen esan zazu.  
Ikkira Bai, bai: datorela Rufina.  
A. J. Tronpeta Beriala etoriko da. (*Eskuirra juan ta deituaz*)  
¡Rufina! ¡Azkar etori! (*Ezkerera biurtuaz*) ¿Rufina ezagutzen al dezu?

Ikkira ¡Asko! ¡Txikiya zanetik! Onelako tiki... tiki... tiki...  
(*Tiki-tiki esanaz, Ikkira oso makurtzen da, eskuarekin iya lura jo arte.*)

A. J. Tronpeta Ona, emen, Rufina.  
(*Rufina eskuitik sartzen da. Beste guztiyak baño aundiago ta guriago izan bear du. Arki liteken aundi ta lodiena. Ikkira, ikusten duenean, isuarekin lurera eroriko da.*)

Ikkira ¡Ez! ¡Ez! Ori ez da tiki-tiki, aundi-aundi baizik. ¡Ori ez da Rufina!

A. J. Tronpeta Bai, auxen da.  
Ikkira Ori ez da nik esan detana. Gorde ori... zera... nik, Donostiyan, ezagutzen det mutil-zar bat, mokoluxe ta *enreamakila* bera... ta ura datorenerako gorde ori.

A. J. Tronpeta Zurekin ez degula erez asmatuko iduritzen zait.  
Ikkira (¿Bañan, non ote dabil Potxolo, larde ori! Etori zitekien bada bera ere.)

A. J. Tronpeta Tira, ¿zertan gelditzen gera?  
Sorgiñak (*Saltoka ta ojuka*) ¡Ui!  
Ikkira Beriala, beriala. (Ikusten danez izenez ere aldatua izan bear du. ¡Orain emen arapatuko banu, txirtxilatuko nuke!) (*Potxolo eskuitik sartzen da dantzatuaz eta abestuaz, eta Ikkira'ri jira egiten dio.*) ¡Ara bera! ¿Nun abil i, kirten ori!

Potxolo Ire bila etori nak.  
Ikkira Lenago etori itekian.  
Potxolo ¿Zergatik deitu ez diak?  
Ikkira (*A. J. Tronpeta'ri*) Auxen da nik nai nuena.  
A. J. Tronpeta ¡Katalin!  
Ikkira ¡Katalin! (*Potxolo'ri*) ¿Katalin al aiz i?  
Potxolo Bai, bada. ¿Ez al ekikan?  
Ikkira Ik, oraindik, zudura re trukatuko dek.

Potxolo                    ;Ixo! ;Ixo!  
A. J. Tronpeta        Tira, bada; jua biar badegu, garaia da.  
Ikkira                    (Potxolo'ri) I, gero... nere bizkarian dantza gutxi, e?  
Potxolo                    (Abestuaz eta dantzatuaz) Tu-tu... kurukutuku...  
Ikkira                    Zudura zanpa zanpa egingo diat. (Potxolo,  
                              Ikkira'ren bizkarian jartzen da. Jartzerakoan,  
                              Sorgiñak oju egiten diote.)  
Sorgiñak                ;Aupa!  
Potxolo                Ederki niak orela  
Ikkira                Ni baño obeto.  
A. J. Tronpeta        ;Orela bizi bagiña beti ondo giñake, Katalin.

Eresia 13 [...ondo giñake Katalin]  
Azken eresia

*(Eresi bitartean, Andre Joxepa Tronpeta aurretik dala, ondoren Ikkira Potxolo bizkarian duela ta atzetik Sorgiñak deadarka, saltaka ta eratzak erabiliaz, iruditegiari jira egiten diote ta ezkeretik joango dira.)*

Estalkiak jeixten dira

Ezkuta-zapia jeixten da

Bigaren Egintzaren Amaia

## IRUGAREN EGINTZA

Zazpigaren laukia  
Aztien mende

Eresia 14  
Sarerao eresia

*(Estalkiak jasotzerakoan Sorgin-eriko gela apain, ikusgari bat azaltzen da.)*

### Izketa

Lenengo Irudia

I

Andre Joxepa Tronpeta, Iz-Lamiña

*(Andre Joxepa Tronpeta, atze aldean, juan etori dabil.*

*Iz-Lamiña eskuitik sartzen da, besoak jasoaz eta indartsu itzegiñaz.)*

- Iz-Lamiña                      Sorgin-eriko il-itza! laguntzaleak, zuen begi erukitsuak zabaldu ta, emengo atsekabe minkaitzak ikusirik, zuen malko xamur, leunak, gure oraingo latzikera neketsua gozatu bezate.
- A. J. Tronpeta                      ¿Zer gertatzen da?  
Iz-Lamiña                      Gerta liteken zorigaitzik ikaragariena. Gure aureko lamin omengariak beñere ezagutu ez zuten alako elkaitza. Emengo ganga sendoak dar-darka jari dituen gertaketa laidagarria.
- A. J. Tronpeta                      ¿Zer ordia?  
Iz-Lamiña                      Nexka xaren artalde gozatsuan, otsoa, ardiz jantzita, barenaratu zitzayen... ¡Biyotza purukatzen diran oroipen oñazgaria!... Ardi gaxoen tartean, berakin bat eginik, otsoa, otso likixkeria bizitu da...! ¿Non egon gera gu, petralkeri ori ez usaintzeko.
- A. J. Tronpeta                      ¿Nola da ori?  
Iz-Lamiña                      ¿Nexka-xaretan bizi zan Katalin... ¡gaurtik izen gorotagarria!... Katalin ura... Katalin etzan.
- A. J. Tronpeta                      ¿Zer zan bada?



Iz-Lamiña Potxolo deitzen omen zioten... eta, aritu, txunditu zaite... ¡gizonezkoa zan! ¡gizonezkoa! ¡Ta nexka-xar gajoen artean, emakume bere burua egiñik bizitu da!

A. J. Tronpeta ¡Eru beltz orek, bere zigorkada izango du!

Iz-Lamiña ¡Ez du izango!

A. J. Tronpeta ¿Nola?

Iz-Lamiña Izan duelako.

A. J. Tronpeta Ondo egiña dago.

Iz-Lamiña Erioztegiko arzuloan, amiltegitik bera bota degu, ta bertako arkaitz mutur zorotzak, gorputz nardagari ura betiko txirtxilatatu dute. Aren antsi gorotagariak gure sumiña zerbait apaldu digu.

A. J. Tronpeta Ta, orekin gai itzal au amaitua gelditzen da.

Iz-Lamiña Ez da amaitua gelditzen.

A. J. Tronpeta ¿Nola ez?

Iz-Lamiña Gaizkidea ere bada. Ta orena ez da oraindik amaitu.

A. J. Tronpeta ¿Gaizkide ori nor da?

Iz-Lamiña Ixkira deitzen dioten arlote ori.

A. J. Tronpeta Ezin liteke. Zertara etori dan onera, iñork baño obeto dakit, eta emengo bere eginkizunetan neronek lagundu diot. ¡Ixkira'k ez du zer ikusirik!

Iz-Lamiña ¡Zer ikusiya badu! Zuk esan dezuna, zuk esan bezela izango da; bai, noski. Bañan, ez didazu ukatuko: Ixkira, Potxolo'ren lagun aundiya zala; berarekin ixilka-mixilka asko ibiltzen zituela; ta, azkenik, mutil-zar bidean ere, ura bizkar-lagun artuta jua zala. ¡Ixkira, Potxolo'ren gaizkidea da!

A. J. Tronpeta ¡Ez det beñere txinistuko!

Iz-Lamiña Zuk ez txinistu aren, bestiak txinistu dute, ta orain aztiyen mende dago.

A. J. Tronpeta ¿Aztiyen mende erori al da? ¡Gizarajoa!

Iz-Lamiña Bai; ta zure laguntzaren itxaropena zuela, ondo agertu du. Estutasun aundienetan, oñazerik bizienetan, zarpail orek deadarka esaten zuen:  
¡Andre Joxepa Tronpeta  
Eregiñaren lantzeta!

A. J. Tronpeta Neronek erakutzia da; ta laguntzera joango nitzaiola agindu nion. Bañan, egiya esango badet, deadar oyek entzun ez ditut.

Iz-Lamiña Entzun-bidea nik eragotzi det.

A. J. Tronpeta Gaizki egin dezu.

Iz-Lamiña Sorgin-eriko pake baretsua loitu izan nai duten biotz-beltz oyeekin, gaizki egiñik ezer ez da. Egin duten kaltea ordaintzeko beren biziak gutxi dira.

- A. J. Tronpeta Orela usteko dezu zuk baña, ni, nerean nago. Gizaseme, gizarajo ori zigortzea erabakia badago, egin bedi; bañan ez det nik beñere bere eruan txinistuko.
- Iz-Lamiña Zigortzea erabakia dago, ta zigorkatuko da... (*Atzetik ezkerera begiratuaz*) Emen dakarte...
- A. J. Tronpeta Ez det ezer ere ikusi nai. (*Aurean, ezker aldiari jartzen da, ta ez dio ezereri begiratzen*)
- Iz-Lamiña ¡Sorgin-eriko lagun atsegiñak, poztu zaitezte!  
¡Gugan bota izan duten loikeria, gaizkilen buruakin garbituko da. ¡Zorion azti ta neskazarak! ¡Zorion Lamiñ eta Maitagariak! ¡Zorion guztiak!

## Bigaren Irudia

### II

#### Lengoak, Ixkira, Mañu-aztiya ta Aztiyak

*(Ixkira, sokaz oso lotua, lau azti jiran dituela, ta Mañu aztiya aurean dala, ezkeretik sartzen dira. Ixkira antzika dator. Aztiak sorgin-txistua juaz jaraitzen diote.)*

Iz-Lamiña Ixkira	Ona, emen, basati sabel-goria. ¡Gogor berarekin! <i>(Antzika kordia erdi-galduan)</i> ¡Andre Joxepa Tronpeta Eregiñaren lantzeta!
Aztiak	<i>(Ixkira'ren jiran dantzatuaz, azkazalakin aramazkatu nai balute bezela ta leizakoa dirudien abotsarekin abestuaz)</i> Upa, labirun-labirun, bera. Upa, labirun-labirun, be. Upa, labirun-labirun, bera. Upa, labirun-labirun, be.
Iz-Lamiña	Mañu: zirtzil oren begiyak neretzat gorde biar dizkidazu.
Mañu	Zuretzat izango dira.
Iz-Lamiña	Badakizu nere xapoa, gizon begitara itxutua dala.
Mañu	Bai, bai: zuretzat izango dira.
Iz-Lamiña	Bañan, il baño len atera biar dizkiozu; bestela minkaiztu egiten dira.
Mañu	Ala da; bañan lenbizi, gorputz guziya sutan pixka bat gorituta.
Iz-Lamiña	Bai, bai; lenbizi bera sutan galgal euki bear da.
Mañu	Beriala. <i>(Ixkira'ri)</i> Nik gozoro, sutan kixkaliko zaitut. <i>(Aztiak, sorgin-txistua joaz jiran dabizkio.)</i>
Ixkira	<i>(Antzika, kordia erdi galduan)</i> ¡Andre Joxepa Tronpeta Eregiñaren lantzeta!
Aztiak	<i>(Ixkira'ren jiran dantzatuaz, azkazalakin aramazkatu nai balute bezela, ta leizakoa dirudien abotsarekin abestuaz)</i> Upa, labirun-labirun, bera. Upa, labirun-labirun, be. Upa, labirun-labirun, bera. Upa, labirun-labirun, be.

Mañu (*Iz-lamiña'ri*) Suaren bila nua. (*Ezkeretik juaten da.*)

Iz-Lamiña Ekari, bai; ta suaren indar gartsuak petral oren eru beltzak, betiko garbitu ditzala. Sorgin-eria atseginduko da, Lamiñak atsedean gozoa izango degu, ta lengo pake baretsura biurtuko gera. ¡Il-itsal adizkideak lagundu, aren gure egipenean!

Mañu (*Subontzi sua gal-gal duen bat eskuetan ekariaz, ezkeretik sartzen da*) Ona emen.

Iz-Lamiña Jari gañean eta gori-gori egin beriala.

Ixkira (*Antzika*) ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

Mañu ¡Ago ixilik, ama ordiyaren seme uztel madarikatua!

Aztiak ¡Ixo! ¡Ixo!

Ixkira ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

Mañu ¡Ixilikan, tortikaz jositako ume baldar, nazkagariya!

Aztiak ¡Ixo! ¡Ixo!

Ixkira ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

Mañu ¿Ez dek ixildu nai? ¡Nik ixildu aziko at! (*Iz-Lamiñari*) Mingaña kenduko diot, eta arela ixilduko da. (*Mañu ezkeretik juaten da*)

Iz-Lamiña Ori da. Mingaña atera, ta ez du geyago deadar lotzagaberik egingo. Bere gezurezko itzakin ez du geyago loituko Sorgin-eriko biziera zintzoa. Bere maru nardagariakin ez ditu nazkatuko gure belari argiak.

(*Gorika aundi batzuek eskuetan ekariaz, Mañu, ezkeretik, sartzen da.*)

Mañu Arantzak egiteko goguak kenduko dizkiat orain. (*Mañu'k mingañetik eldu nai dio baña, Ixkira'k burua ibiliaz ez dio uzten.*)

Ixkira ¡Ai! ¡ai!

Mañu ¡Ago geldirik, madarikatu ori!

Aztiak ¡Geldi! ¡geldi!

Iz-Lamiña ¡Eutzi, guztien artean! (*Aztiak, guztien artean, gogor eltzen diote.*)

Mañu ¡Orain! ¡orain! (*Gorikarekin mingaña kentzen asten da.*)

Ixkira ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

## Irugaren Irudia

### III

#### Lenguak eta Kaxiana

- Kaxiana (*Eskuetan paper gori bat dakarela eskuitik sartuaz*) ¡Geldirik, Baso Jaun aundiaren izenean!
- Aztiak (*Besoak jasoaz*)  
¡Baso-Jaun indartsua  
Sorgin-erian goitua!
- Kaxiana Andre Joxepa Tronpeta: Baso-Jaun aundiaren erabakide jakintsua irakuri zazu. (*Paper gorria A. J. Tronpeta'ri ematen dio. Onek irakuri ondorean esaten du:*)
- A. J. Tronpeta ¡Baso-Jaun aundiak agintzen duena betetzeko gertu zerate?
- Aztiak (*Besoak jasoaz*) Bai.
- A. J. Tronpeta Unerik galdu gabe, gizaseme gizarajo ori azka zazute.
- Kaxiana Neronek azkatuko det.
- A. J. Tronpeta Ondo da. (*A. J. Tronpeta'ren lenengo agindua entzutian, guztiak Ixkira gana egiten dute. Gero atzeratzen dira.*) Ta, zuek, zuen tresnak artu, ta kinkik atera gabe, alde egizute emendik. (*Subontzia ta gorika arturik, Aztiak, banaka, leroan, ixil-ixilik, ezkeretik juaten dira. Iz-Lamiñak eskuitik alde egiten du.*) (*Kaxiana'ri*) Baso-Jaun aundiak bere gana deitzen nau, ta zer nai duen jakitera nijoakio.
- Kaxiana Ederki; ta zure laguntza gatik, mila esker. (*A. J. Tronpeta, eskuitik juaten da.*)

## Laugaren Irudia

### IV

#### Kaxiana ta Ixkira

*(Ixkira begiak itxita dago, ezer ikusi ta entzuten ez balu bezela. Kaxiana'k sokak azkatzen dizkio.)*

Kaxiana Orain, lokabe, azke izango zera.  
Ixkira *(Kaxiana'ren abotsa entzutian zoraturik)* ¡Kaxiana!  
Kaxiana Bai, Ixkira: ni naiz.  
Ixkira Zure abotsak, zure itzak, galdutzat neukan biziya berpizten dit.  
Kaxiana Alaitu zaite orain.  
Ixkira *(Begiak zabalduaz)* Zure begi zoragariak, galdutako indarak nereganatzen dizkidate.  
Kaxiana Bai, Ixkira, bulartsua izan zera, ta, aurera ere, orela izan biar dezu.  
Ixkira Zure naitasunaren erañu gartsuak, zorion paketsuko ateak zabaltzen dizkidate.  
Kaxiana Eta zorionekuak izango gera.  
Ixkira Bañan, oñaze zorotzak eraman biar izan ditut.  
Kaxiana Badakit...  
Ixkira Aztien menpean laritasun garatzak igaro ditut.  
Kaxiana Orengatik, jakin detan bezin laister, zure azkatasuna eskatzera, Baso-Jaun aundiaren gana juan naiz.  
Ixkira ¿Zuri zor dizut beaz...?  
Kaxiana Bai; azkatasuneko erabakidea neri eman dit.  
Ixkira Beaz, ¿len bezela, maite nazu?  
Kaxiana Len bañore naitasun sutsuagoakin.  
Ixkira ¿Nola, orduan, alde egin zenidan?  
Kaxiana Ala beara...  
Ixkira Ni, zu gabe, ezin bizi nitzan.  
Kaxiana Ni ere ez, zu gabe.  
Ixkira Beti zugaz oldozten.  
Kaxiana Ni zugaz bezela.  
Ixkira Zugana nondik etorik nitzan...  
Kaxiana Ni, beriz, ikustera ere juan nitzazun.  
Ixkira ¡Zu!...  
Kaxiana Ni, bai.  
Ixkira ¿Noiz, ordia?  
Kaxiana Eraneun.  
Ixkira ¡Eraneun!

Kaxiana Aratsaldeko bostetan... ez, gaizki ari naiz: bostak, amar minutu gutxiyagotan.

Ixkira ¡Ezagutu giñan ordu berean!

Kaxiana Alaxen da. Sukaldean, bakar bakarik zeunden. Leyo ondoan, burua beso gañean etziñik, itxura kupigaria zeneukazun.

Ixkira Egiya da. Baña, zu...

Kaxiana ¿Ez al zera gogoratzen, nola katu beltz txiki bat etori zitzazun?

Ixkira Bai, gogoratzen naiz.

Kaxiana Ni nitzan bada...

Ixkira ¡Zu!

Kaxiana Begietan ezagutuko ninduzula uste nuen.

Ixkira ¿Zu al ziñan?

Kaxiana Bai. Noiz baño noiz, eskua bizkar gañetik igaroaz, maite-maite egingo ninduzun egon nitzan.

Ixkira ¿Ezagutu gabe nola ordia?

Kaxiana Alkar-ganako naitasun beroan igarotako ordu xamuraz gogoratu nitzan... Aritzen giñanian, jakiyari, zuk koxk... (*Biyak txanda ezin arturik*)

Ixkira

Kaxiana

zuk koxk  
eta nik koxk  
zuk koxk  
eta nik koxk

eta nik koxk  
zuk koxk  
eta nik koxk  
...

Kaxiana Eta gogorapen orek eman zidan argitasunarekin, mai gañian, gazta puxka bat ikusi nuen, eta koxk egitera jua nitzan...

Ixkira ¡Egiya da!

Kaxiana Orduan... zapata zar bat bota zenidan.

Ixkira Eta zuk... ¡fuu! egin zenuen.

Kaxiana Nola ez... Gaur goizian, oraindik, belaun azpia minberatua neukan.

Ixkira ¡Ez jakiñian!

Kaxiana Orduan, txoko batera jua eta andik aritu nitzazun: ¡Miau! ¡Remiau! Limurtuko ziñala uste nuen; baña zu geroago ta asariago jartzen ziñan.

Ixkira ¡Ez jakiñian!

Kaxiana ¡Ez didazu ordia, zapata zarik geyago botako!

Ixkira ¡Ez ta beririk ere!

Kaxiana ¡Ain maitetsu jua nitzazun ta...!

Ikkira                   Urenguan, zuk *miau* esatian, nik *mafau* erantzungo  
dizut.  
Kaxiana                ;Miau! ;Remimimiau!  
Ikkira                   ;Mamamamafau!  
Kaxiana                ;Miau! ;Ramimimiau!  
Ikkira                   ;Mamamafau!

(*Biyak, katuen antzera miau egiñaz eta alkar maitatuaz*)



## Bostgaren Irudia

### V

#### Lengoak eta Andre Joxepa Tronpeta

A. J. Tronpeta (*Eskuitik sartuaz*) ¡Xapi!  
Ikkira ¡A! Andre Joxepa! ¡Asketzi!  
Kaxiana Naitasunezko jostaketan gebiltzan.  
A. J. Tronpeta Ikusten det. Eta zuen naitasun orek iraun dezala.  
Ikkira Bizi geran artian iraungo du.  
A. J. Tronpeta Ala bear ere da. Geroago ta maitiago izan bear dezute.  
Ikkira Ala izango gera.  
A. J. Tronpeta Uste oretan dago, Baso-Jaun aundia ere, ta orengatik ezkontzeko baimena ematen dizute.  
Ikkira ¡Zorionekoak gera!  
Kaxiana ¡Bai orixe!  
A. J. Tronpeta Eta etxera nola joango zeraten ere, erabaki du.  
Ikkira ¿Emendik etxera? ¡Nolanai! Oñez joango gera.  
A. J. Tronpeta ¡A, gizarajoa! ¿Non zaudela uste dezu zuk?  
Ikkira ¿Nun egongo gera? Igeldo pian.  
A. J. Tronpeta Igeldo-pian sartu ziñan, bai. ¿Bañan, suzko ibaia nola igaro zenduen astu al zaizu?  
Ikkira Izan ere.  
A. J. Tronpeta ¿Mutil-zar bide neketsuaz gogoratzen ez al zera?  
Ikkira Ura, luzia baño luziagoa zan.  
A. J. Tronpeta Orain, Anboto mendiya baño urutiyago arkitzen gera.  
Ikkira ¡Batere uste gabe nik ibildu ditutan bidiak!  
A. J. Tronpeta Orengatik, Baso-Jaun aundiak, zuek izar batean etxeratzea erabaki du.  
Ikkira Izar batian, eta nere izar au aldamenian detala ¡zer zoriona! ¡Eskerikasko, andre Joxepa!  
Kaxiana Asko zor dizugu  
Ikkira Eskerak eman zerari ere... zera... Pelo'ri.  
A. J. Tronpeta (*Asare*) !Zer esan dezu! (*A. J. Tronpeta ta Kaxiana'k besoak jasoaz. Ikkira ere besoak jasotzen asten da, ta, lotsaturik burua atzapakartzen gelditzen da*)  
A. J. Tronpeta eta Kaxiana ¡Baso-Jaun indartsua  
Sorgin-erian goitua!  
Ikkira Asketzi, andre Joxepa, pozaren pozaz, txirixtatu egin naiz.

A. J. Tronpeta Ez bada aurerakoan txiristatu.  
Kaxiana Txirixtik egiten ez diot nik utziko.  
Ixxira Ta zutzaz gogoratuaz, beti esango degu:  
                  ¡Andre Joxepa Tronpeta  
                  Eregiñaren lantzeta!

A. J. Tronpeta (*Ezker-eskuira begiratuaz*) Zuei azken-agura  
egitera, Maitagariak emen datoz.  
Kaxiana (*Ixxira'ri eskua emanaz.*) Azken-agura, laster,  
betiko lotu bear diran eskuak emanda.  
Ixxira (*Kaxiana'ren eskua estuturik, eta pozaz zoratzen*)  
¡Txarmangaria zera!

# Seigaren Irudia

## VI

### Lengoak eta Maitagariak

Eresia 15 [Txarmangaria zera]  
Irudi eresia

*(Ezker eskuian Maitagariak leroan azaltzen dira ta eresia ari dan bitartean Ixkira ta Kaxiana'k batzuei ta besteai agur egiten diye)*

Estalkiak jeixten dira

Zortzigaren Laukia  
Izarean

*(Estalkiak jasotzeakoan atzean agertuko da zerua izarez betia.  
Tartian beste guzizak baño aundiyagoko izar bat ikusiko da.)*

Irudi Bakara

Andre Joxepa Tronpeta, Maitagaria.- Azkenean Ixkira ta Kaxiana.

*(Maitagariak ezker eskuitan leroan egongo dira; ta eresia ari dan bitartean zenbait dantza egingo dituzte. Azkenean Ixkira ta Kaxiana izarean agertuko dira ta A. J. Tronpeta ta Maitagariak beren musuzapiakin agur egiten diye)*

Estalkiak jeixten dira

Itz-azkena

Izketa

Oleskaria            (*Estalki tartetik ateriaz*) Jaun, andreak:  
Ipuia, amaitu da.  
Zuen gogokoa izan bada, atsegin aundi bat izango du  
oleskariak.  
Nolanai dala ere, gaizki esanak barkatu; ta...  
"Ayek an ta gu emen  
Gure kontubak Plandesen."

Ezkuta-zapia jeixten da

Eresia 16 [Andre Joxepa Tronpeta]

AMAYA

1920ko Lotazilaren 10<sup>n</sup>